



Ibai Trebiño: «Hemengo komunikabideek ez dute sekula esan estatu-kolpea egon zenik Ukrainan» ▶16-17

Gabriel Aresti: BioGrafikoa komikiaren xehetasunak azaldu dizkigu Adur Larrea Eguren marrazkilari erandioztarrak ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



36. zenbakia

2015eko
urriaren 29tik
azaroaren 4ra arte

Euskara gozarazten

Errigora ekimenak Erriberako ekoizleen primerako elikagaien saskiak saltzeari ekin dio, aurten ere.

Etekinen %25 euskarari emango diote: Lodosa eta Vianako ikastolei, AEKri eta D eredua zabaltzeari.

Saskiak 50 euro balio du, eta Uribe Kostako 15 lekutan edo Internet bid ez eska daiteke, azaroaren 8ra arte.



BUSTURIALDEKO HITZA

KULTURA PLENTZIA

Mendibil, kantuan

Gontzal Mendibili gorazarre egingo dio Kantagunek. ▶11



Azaroaren 2ra arte aurkez daitezke Getxoko Argia Ereiten Euskara Sariaren VI. ediziorako proposamenak. ▶3

XXXIII. Ibilaldi Neurtua hartuko du Berangok azaroaren 1ean. Egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako. ▶9

STOCK EUSKADI 2015
9. EDIZIOA

AZAROAK 6-7-8
NOVIEMBRE

11:00 - 21:00
Sarrera 2€ umeak doan
Entrada 2€ niños gratis

FORMATU BERRIA
ZUZENENOKI ESKAINTZAK
PHOTOCALL
SARE SOZIALEKIN BIRBILTZEKO HARREPMANAK
PANTAILA ERREALDIA
YOUTUBERLARIARAK, BLOGGARIARAK
ETA BESTE ASKOK!

BESTE PLANETA BATEKO ESKAINTZAK

%80 bainekoa
HASTA
DESKONTUAK

PUNTAKO MARKAK
Primeras marcas

3000€ko * ZOZKETA BERTARATUTAKOEN ARTEAN * (200€ 2 orduan behin)

Argibide gehiago: www.stockeuskadi.com info@stockeuskadi.com Tel. 944 458 222

[facebook.com/stockeuskadi](https://www.facebook.com/stockeuskadi) [@stockeuskadi](https://twitter.com/stockeuskadi)

Getxo



Domekaro, batzen ibili da XVI. Indabada antolatzeako lantaldea.

«Herriak herriarentzat, gora Indabada!»

Urriaren 31n, zapatua, XVI. Indabada Mundiala egingo dute Algortako Txiki-Otaegi (San Nikolas) plazan. Aurreikusi dutenez, 300 lagunentzako bazkaria egongo da; txartelak Ajuria, Hator eta Salem tabernetan lor daitezke, 10 euroan.

IKER RINCON MORENO ▶

Urtero legez, urriko azkenengo zapatuan Indabada Mundiala hartuko du Algortako Txiki-Otaegi plazak. Hori horrela, urriaren 31n plaza «berreskuratuko» dute herriko 300 gaztek baino gehiagok. Talde majoa sortu da aurtengo prestaketetarako, eta egitarau hobeazina prestatu dute.

Aurten 16 urte beteko ditu Indabadak; zelan doa prestaketa?

Nahiko ondo, gauza batzuk zehaztu behar dira oraindik, baina orokorrean, gustura eta ondo. Duela hiru aste ekin genion prestatzeari, apur bat berandu, edo eguna baino apur bat lehenago, prestatu behar diren gauza guztietarako. Bileretara hurbildu den jende guztiagaz, ideiak nahiko azkar ateratu dira, eta prestaketa oso ondo egin dugu. Do-

mekaro bildu gara, Txiki-Otaegi plazan, arratsaldeko 19:30ean, eta batez beste, 10-15 pertsona ibili gara lanean.

Inoiz baino gehiago hurbildu zarete prestaketarako. Zerk eragin du hori?

Azkenengo urteetan jende falta ikusi da prestaketan, eta horrek eragin du jendea animatzea. Indabadara urtero etortzen den jendea da bileretara etorri dena. Gazte-mugimendu hori gustuko dutenez, aurten animatu egin dira bultzada hori emateko. Iaz, nahiko ahul ikusi zen Indabada, eta jendea, nekatuta.

Orokorrean, jendeak lagundu egiten du, baina egunean bertan gauza zehatz batzuetarako soilik; hori horrela, aurten pauso bat aurrera eman, eta prestaketan sartzea erabaki dute askok, eta horrek freskotasuna eman dio mugimenduari, ekarpen ezberdinak. Erraza da kanpotik kritikatzeko,

baina proposamenak egiteko beharrezkoa da barruan egotea. Indabada herrikoia da, herriaren indabada, eta ez da bost pertsonak egiten duten zer-bait herria zerbitzatzeko. Herriak prestatzen du, herriarentzat.

Zeri erantzuten dio Indabadak?

Urtero egiten da jaialdia, gazteon artean autogestionatuta dagoena. Herriko hesio hori sortzea ere garrantzitsua da; beti biltzen gara gauean eta mozkoraldietan, baina egunez egiten den jaialdi bat denez, beste izaera-mota bat dauka; herri-izaera duten gauzak egiteko aukera eskaintzen du. Era berean, harremanak sortzeko tresna paregabea da, egunean bertan zein prestatetarako bidean ere.

Zer dela-eta ekarri duzue gogora Intifada Indabadaren goiburuan?

‘Intifada’ eta ‘Indabada’ hitzen arteko

jokoa egin nahi izan dugu aurten, Askapenaren aldeko keinua egiteko eta internazionalismoa aldarrikatzeko. Era berean, Intifada herri-altxamen-durako borroka-mota bat da, eta Indabada ere jaialdia izateaz gain, herriak duen indarra erakusteko modu bat ere bada, herriko leku eta plaza publikoak berreskuratzeke, besteak beste.

Zelan gogoratzen dituzue aurreko edizioak?

Orokorrean, ondo. Oso ondo pasatzeko aukera eskaintzen du Indabadak. Urriko jaialdia da, eta beti dago markatuta egutegian. Hala ere, esan bezala, azken urteotan apur bat *flojo* egon da. Dena den, jendeak beti hartu du parte horretan, euria zein eguzkia eginda ere, eta hori oso positiboa da. Egun zehatza da, non jende guztia datorren ondo pasatzera. Herrian egiten den gauza bat da, herriko plazan bertan herriari girotzeko.

Zelan sortu zen jai hori?

Diotenez, aspaldi, udako jaietan, gazteek txosna bat jarri zuten, eta txosnan bildutako dirua nolabait herriari bueltatu behar zitzaiola ikusi zen. Hori horrela, Indabada egiteko ideia bota zuten, txosnan lortutako dirua nolabait herriari bueltatzeko. Daborduko, 16 urte igaro dira, ideia horri ekin ziotenetik.

Zein izango da aurtengo egitaraua?

Indartsua da aurtengo programazioa. Goizean goizetik, diana joko dute Algortako kaleetatik. Ondoren trikitilariak Txiki-Otaegi plaza alaituko dute, eta 12:30ean, txotx!a irekiko da. Produktu ekologikoen azoka ere egongo da eguerdian. Gero, 13:30ean, aurtengo proposamen berria: dantza gidatua. Goizean, jendeak ez du jakiten zer egin, eta pentsatu dugu dantza gidatuak aukera eskaintzen duela plazaren erdian denok elkarrengaz egiteko... Horren ostean, 15:00ak aldera, bazkaria izango da plazan bertan, 10 euroren truke; denok bazkaldu ostean, bingoa, jokoak eta kantaldia egongo dira, besteak beste. Arrastiko 08:00etan, berriz, elektrotarangagaz poteoa abiatuko dugu, eta horregaz batera, ginkana egingo da Algortako hainbat lekutan. Azkenik, gauean festa egongo da. ◀



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
 Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



GOIZEAN
 “Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa”
 Prentsa - Frutu lehorrak - Aldizkariak - Litsxerriak
 Orduña Mendatea 1
 Tf. 94 430 22 13
 GETXO

Getxo

Berbalagunak, martxan

Euskaraz berba egiteko egitasmoan izena emateko aukera urriaren akabuan amaituko da.

Berbalagunen taldeetan parte hartu ahal izateko izena emateko epea zabalik du Egizu Getxo Euskaldun elkarteak. Euskaraz berba egiteko ohitura duten pertsonak eta euskara ikasten dabiltzan eta mintzapraktika egin gura dutenak batzen dituzte berbalagunen taldeek. Asteazkenetik, talde txikiak biltzen dira, Egizu Getxo Euskaldun elkarteak antolatutako ekimen horren bitartez. Ordubetez, jarduera desberdinak egin ahal izango dituzte bertaratutako lagunek, euskaraz.

Iazko ikasturtean, 187 lagunek parte hartu zuten, 21 taldeetan banatuta. Talde horiek guztiak Algortan edo



Iazko edizioan, 187 lagunek hartu zuten parte Berbalagunak egitasmoan.

Areetan elkartzen ziren, adin guztietako 6 eta 8 lagun bitarteko taldeetan.

Egundoko aukera da Berbalaguna egitasmoa euskaraz berba egiteko ohitura hartzeko. Interesa dutenek urria amaitu baino lehen eman behar dute izena; horrenbestez arin ibili!

Berbalagunen talde batean jarduteko ondoen datozkion lekua eta ordua aukeratu ahal izango ditu izena ematen duenak. Antolatzaileek adierazi dutenez, parte-hartzaileen beharretara egokitu dituzte taldeak.

info +: www.egizu.eus

Euskara Sarirako hautagai bila dabil Getxoko Udala

Azaroaren 2ra arte dago Argia Ereitena Euskara Sariaren VI. ediziorako proposamenak aurkezteko aukera. Euskararen erabilera babestu, sustatu edo hedatzeko zereginetan nabarmendu diren erakunde, elkarte, norbanako edo pertsona juridikoak goraipatzea da Udalak antolatutako sari horren helburua. Hautagaiek getxoztarrak edo Getxon finkatutakoak izan behar dute. Lehen irabazlea Laura Lapeyra izan zen, J.B. Zabala ikastetxeko Gurasoen Elkartearen euskararen erabilerean alde egindako lanagatik. Bigarrena, Bittor Egurrolak jaso zuen, euskararen sustapenean emandako denagatik; hirugarrena, San Nikolas ikastolak, euskarazko heziketan egindako 50 urteko lanagatik; laugarrena, Nahikari Ayok, udalerriko ikastetxeetan bertsolaritzaren alde egindakoagatik, eta bosgarrena, Gobela Ikastolak, urteurrenean.

proposamenak aurkezteko: getxo@getxo.eus

Getxoko Manga Jaialdia
Festival de Manga de Getxo
2015

Areetako Geltokia Plaza
 Estación de Las Arenas

ORDUTEGIA-HORARIO
 11:00-14:30
 17:00-21:00

Azaroak 7-8 Noviembre

Sarrera/Entrada: 3€

Getxo

Urriaren 31n Madrilén manifestatzera deitu dute, Askapenaren alde

Egunotan Gabi Basañez Ruiz algotarra, Walter Wendelin, Unai Vazquez Puente, David Soto Aldaz eta Aritz Gamboa de Miguel Askapena erakundeko kideen kontrako epaiketaren egiten dabilen Espainiako Auzitegi Nazionalen. Prozesua azaroaren 2ra arte luzatuko da; hori dela-eta, auzipetuei eta internazionalismoari babesa adierazteko asmoz, Madrilgo hainbat eragilek manifestazioa deitu dute urriaren 31rako, zapatua. Libre eta Eleak mugimenduek jakinarazi dute autobusak antolatuko dituztela Euskal Herriatik joateko, «herrien arteko elkartasuna sustatzeko, eta gure esku-bideak defendatzeko».

Polizien operatiboa, ahaztuta

Askapenako kideen jarraipenetan, atxiloketetan eta erregistroetan parte hartu zuten poliziek deklaratu zuten joan den urriaren 21ean. Deklaratu zuten polizia gehienek ez zuten ondo oroitzen 2010ean Askapenako kideak atxilotzeko egin zuten operatiboa, eta aktetan jasotzen dena berretsi zuten. Halaber, baieztatu zuten ez dutela gogoratzen atxilotuen etxebizitzetan ETA erakundeagaz lotutako sinbologiarik aurkitu zutenik. ◀



Familia artean egiteko tailerrak martxan dira

Sendi proiektuak familia osoarentzako ekimen ugari antolatu ditu udagoienerako. Kirol-jardueren ostean, cookie gailetak egiteko tailerrak ordua ipini du azaroaren 3an, martitzena, Algortako Sarrikobaso kaleko 2an dagoen Bidebitarte txokoa. Hitzordua 18:00etatik 19:30era ipini dute; komeni da tuperra eroatea.

Hurrengo saioa azaroaren 8an izango da, domeka. Egun horretan, 7 urte-tik gorako neska-mutilek eta gurasoek aukera izango dute buztin polimerikoagaz hainbat objektu apaintzeko: egurrezko markoak, beirazko ontziak, arkatzak... Horretarako, hainbat eredu ekarriko dituzte, ideiak hartu eta bakoitzak gura duen modura egiteko. Hitzordua 17:00etatik 18:30era jarri dute, Algortako Karitate kaleko 1 zenbakian dagoen Aldai Patronatuan. Egurrezko markoa, kristalezko ontziak eta arkatzak eroatea gomendatu dute. ◀

Aberriratzeko laguntza behar dute

Mujeres con Voz elkarteak laguntza ekonomikoa eskatu du 2015eko urriaren 13an bihotzekoak jota zendutako Veronica del Carmen Serrano Martinezen gorpua Nikaraguara aberriratzeko. Getxon bizi diren Erdialdeko Amerikako hainbat emakume hasi dira hura aberriratzeko prozesurako behar den dirua batzen. Veronica del Carmen Serranoren herrikideak ere dirua batzen hasi dira Somoton (Nikaragua). Azaldu dutenez, azaroaren 13ra arte dute epea 5.000 euro lortzeko; hori lortu ezean, zendutako emakumearen gorpua erraustu egingo lukete.

Gertukoek jakinarazi dutenez, familiak hildakoa agurtu gura du, beilaldia antolatu eta bere herrian lurperatu. «Bere amarentzat oso latza da alabaren erraustak bakarrik jasotzea, baita alabak bere amaren hila-

tza beilatu ezin izatea», azaldu dute. Veronica del Carmen Serrano Martinez 2015eko urriaren 13an zendu zen, lanean zela; bihotzekoak jota. Emakume bat zaintzen zuen, eta horren seme-alabek aurkitu zuten hilda. Gertukoek azaldu dutenaren arabera, hildakoaren arropak eman zizkioten Poliziari, eta ez dute familiagaz harremanetan ipini gura izan, ezta gorpua aberriratzeko laguntza eskaini ere. Veronica del Carmen, 28 urte zituela, lau urteko alaba han utzita, etorri zen Euskal Herriera 2011n; bere familiarena eta bere bizitza hobetzeko asmoagaz etorri zen gurera, familia Somoton agurtuta. Heldu zenetik Getxon egin zuen lan, Derion etxebizitza bateko barne-langilea izan arte. Bertan errolatu zuten; baina, ez zuen kontraturik, ezta aberriratzeko asegururik ere. ◀

Laguntza: ES76 2095 01 9310 9113363061 (BBK)

Berrikasi eta Berrikusi berbaldia azaroaren 5ean

Bizarra Lepoan euskara elkarteak Berrikasi eta Berrikusi berbaldia antolatu du hurrengo egunerako, azaroak 5; eta Kike Amonarriz izango da gidari. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, orain dela gutxi inauguratutako Azebarri kultur elkar-tearen lokalean (Euskal Herria kalea 14-16, Algorta).

Ekimenaren ardatza Euskaltzaleon Topaguneko Topalabea taldeak egindako lana da: «Berrikasi eta Berrikusi gogoeta-testuak azken hamarkadetan euskarak eta euskalgintzak izandako bilakaeraren kontaketa batetik abiatzen dira, eta hurrengo hamarkadetarako lehentasun izan dai-

tezkeen lan-ildo batzuk irudikatzen dituzte». Topalabea taldeko partaideak honako hauek dira: Kike Amonarriz, Julen Arexolaleiba, Xabier Erize, Mikel Irizar, Elena Laka, Iker Martinez de Lagos, Iñaki Martinez de Luna, Jassone Mendizabal eta Jon Sarasua.

Berbaldian parte hartu gura dutenek galderak, hausnarketak, kritikak edo ideiak konpartitu ahal izango dituzte bertaratutako guztiakaz. Eta horretarako Berrikasi eta Berrikusi gogoeta-testua aldeztu aurretik irakurtzea gomendatu dute antolatzaileek; hori lortzeko Bizarra Lepoan webgunera jo dezakezue.

info+: bizarralepoan.eus



Pentsalekutik

MAITANE NEREKAN UMANAN
Ezertan aditua, askotan aritua

Fokoak itsutu du Algorta

Estetika politika ere badela aldarrikatzeko tartea hartu nuen aurrekoan eta bide beretik jarraitzeko aukera eman dit Udalak. Guztion ahotan ibili da azken asteotan Algortako plazan jarri diguten «oparitxo» berria: garabia ote, obretarako tresna... ez, Txiki-Otaegiko makro-foko munstroa da! Pentsatzen hasia naiz, tamainako erabakiak hartzen dituztenak konplota dutela herriaren kontra. Algortarrok alde zahar bakarra geneukan eta Antzokiaren obrarekin lapurtu digute: elizako eskailerrak, kioskoa kentzea, makro-fokoa... zer izango da hurrengoa? Adi frontoiko erabiltzaileak! Bide beretik jarraituz gero hila-bete barru kristalezko padel pista aurkituko duzue pilota jokora zoaztenean. ◀

Getxo



Beste eraso bat, Txorimaloren kontra

Ezezagun batzuek Getxoko Txorimalo gaztetxeko ate denak apur-tu eta hormetan irudiak egin dituzte, berriro. Maiatza aldean ere, antzeko irudiak agertu ziren etxe auto-gestionatuan. Azken urteetan, hainbat eraso jasan ditu Txorimalo gaztetxeak. 2008ko azken egunetan pintaketa faxista egin zuten ezezagunek. Gutxienez, urte horretan, birritan jasan zituen mota horretako erasoak gazte

zentro sozial autogestionatuak, baita lapurretak ere. Ez zen lehenengo aldia gaztetxean hainbat objektu desagertzen zenik; izan ere, 2007ko uztailaren 24ko gauean atea behartu, eta dirukopuru txiki bat eta zenbait lanabes eroan zituzten hainbat ezezagunek. 2006ko abenduaren 4an, berriz, gaztetxeari begira zegoen bideo zaintzako kamera bat topatu zuten gazteek, autobaten barruan. ◀

Hainbat proposamen aurkeztu dituzte Getxoko popularrek

Getxoko PPK hainbat proposamen aurkeztu ditu azken asteotan. Arrigunaga hondartzara jaisteko bide berria egitea izan da lehenengoa, ondoko mendi-hegaleko jaitiera «askotan labainkorra» delako, popularren esanetan «Lur-eremua Udalaren jabegokoa da, eta uste dugu bideragarria dela espaloio edo bidegorri bat egitea bide hori egokitzeko», baieztatu du Iñaki Gamero zinegotzi popularrak.

Bigarrena, udaleko hilerria berreskuratzeko plana martxan ipintzeko eskatu dute popularrek. Izan ere, jakinarazi dutenez, getxoitarrek inguru horren kalitatea eta mantentze-lana hobetzeko eskatu dute «behin eta berriro». Popularren arabera, «txikia» litzateke hilerriko mantentze-lana egiteko inbertsioa.

Azkena, garbiketa-zerbitzuaren eta hondakin-batzearen inguruko informazioa auzokideei helaraztea proposatu du Getxoko alderdi popularrak. Ekimen horregaz, euren ustean, auzokideek zerbitzuaren zehaztasunak ho-



Garbiketaren inguruan informatu gura dute.

betu ezagutuko lituzkete eta zerbitzua betetzen dela bermatuko litzateke, «proposamenak jasotzeagaz batera».

Horren albotik, popularrek nabarmendu dutenez, hondakinak batzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzua da Getxoko Udalak ordaintzen duen garestiena; hori dela-eta, «zerbitzu hori egoki eta baldintza onetan betetzen dela adi begiratu behar dugu», adierazi du Iñaki Gamero bozeramaile popularrak. ◀

Leioa

Txorierrirako sarbideko lanak

Udal agintariak urriaren 13ko Hirigintza Batzordeko bilkuran jakinarazi zieten gainerako alderdiei urtarrean jarraituko dutela Txorierrirako sarbide berriko obrak. Hilabete gutxi barru, errepide batek lotuko ditu Torresoloko igerilekueetatik hurbil dagoen biribilgunea eta Txorierrirako gaur egungo sarbidean eraikiko duten beste errotonda bat; Euzko Gudariak Etorbidea luza-tu egingo dute. Iban Rodriguez Etxebarria Hirigintza zinegotziak baieztatu duenez, daborduko herri-lanak lizitatu daude; esleitzea baino ez da falta. «Bide zabala izango da, bidegorri batez eta espaloiakaz», gaineratu duenez. Obren finantzazioari dagokionez, Euzko Gudariak etorbidearen eta Independentzia kalearen artean, Torresoloko 44. sektoreko 2A1 eta 2A2 orubeetan altxatuko dituzten etxebizi-

tzetatik aterako dute Txorierrirako sarbidea amaitzeko dirua.

Independentzia, oinezkoentzat

Etxebizitzak eraikitzen hasi baino lehen, zabalagoa egingo dute Independentzia kalea; hondeamakinak eta kamioiak aurrera eta atzera ibiliko dira etxeak altxatu artean. Hasieran, hormigoia baino ez dute botako galtzada handiagoa egiteko; etxebizitzak amaitutakoan emango diote akabera. Orduan, oinezkoentzat bakarrik bideratuko dute Independentzia kalea. Esnatu Leioako Jose Ignacio Vicente zinegotziak azaldu duenez, gaur egun espaloirik ez dago Txorierrirako sarbide-tik Ondiz kalera doan zatian; «etxeak bukatutakoan egongo dira», gaineratu duenez. Hala ere, eraikitzen noiz hasiko diren ere ez dakitela aipatu du Iban Rodriguez Hirigintza zinegotziak. ◀

Kaleko argiteria kudeatzeko lehiaketa, bertan behera

Urriaren 19ko osoko bilkuran kale-argiteriaren kudeaketa esleitzeko lehiaketa bertan behera uztea erabaki zuen Udalbatzak. Agintea daukaten EAJko eta PSE-EEko zinegotzien aldeko botoak jaso zituen proposamenak; lehiaketa deitu ostean konturatu ei ziren bertoko agintariak baldintzak gehiegizkoak zirela: 15 urtean, urte bakoitzeko 560.839 euro (gehi BEZa) jaso behar zituen enpresa esleipendunak, argindarra ordaindu, eta mantentze- eta konpontze-lanetarako. Oposizioko alderdiek hasieratik kritikatu zituzten baldintzak; Udal batzarrean abstenitu egin ziren Esnatu Leioa, EH Bildu eta PP. ◀

Hirugarren urtez martxan, euskarazko irakurle-kluba

Euskaraz irakurri eta irakurritakoa Eren gainean berba egiteko asmoz jarraitzen dute Kultur Leioako liburutegian; hirugarren urtez, irakurle-kluba abian jarri dute dute-eta. Azaldu dutenez, eredu bera erabiltzen segituko dute: aurreko hilean proposatutako lanaren inguruan berba egiteko batuko dira liburutegiko hemerrotekan, 19:30ean. Hala, urriaren 21ean egin zuten ikasturteko lehenengo saioa; getxoartzatutako Kepa Altonaga idazle loiutarraren *Back to Leizarraga* (Pamela, 2015) lanaren inguruan egin zuten berba; azaroaren 18rako, Mikel Ayllon laudiotarraren *Ez tiro egin anbulantziei* (Elkar, 2015) aukeratu dute. ◀

EAJ eta PSE-EE, Arruebarrena Metro Bilbaotik kaleratzearen aurka, Euzko Legebiltzarrean

Leioako alkate izandako Eneko Arruebarrena Metro Bilbao garraio-enpresako zuzendaritzako kargutik kentzearen kontra bozkatu zuten EAJk eta PSEk, urriaren 22an, Euzko Legebiltzarrean osoko bilkuran; udal leioztarrean egindako «kudeaketa kaskarra» eta Pinosolo auzian dauzkan «erantzukizun politikoak» salatzea eskatzen zuen UPyD alderdiak aurkeztutako arauz besteko proposamenak. EH Bildu koalizioak oso-

rik emendatu zuen Gorka Maneioren taldeak proposatutakoa; Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren «jarrera oztopatzailea» gaitzes-tea gura zuten ezkertiarrek. EH Bilduk aurkeztutako zuzenketagaz, UPyD eta PP abstenitu egin ziren; ez zen aurrera atera. Maneiok defendatutako eskaerari dagokionez, UPyDren ordezkarien aldeko botoez gainera, PPrenak jaso zituen; EH Bildu abstenitu egin zen orduan. ◀



Gai (des)ordena

LOHITZUNE
RODRIGUEZ AURREKOETXEA
Filosofian lizentziatua

Alternatiben herria: geroa gaurdanik

Produktuak ez ezik, prozesuak ere garrantzia du. Hala dio arteaz so-lastea gustuko duen lagun batek. Amesten ditugun ideiak gauzatzeko ematen ditugun urratsak, eskuetan dugun errealitateari ematen dizkiogun formak, behin-behinekoak izanda ere, helburuaren parte dira: ametsaren manifestazio anitzak, hain zuzen. Hori gogorarazi ziguten larunbatean Joxemi Zumalabe fundazioko kideek ere, hots, borroka dela bidea, bai, baina bidea ere borroka dela, bidea bera ere xede izan behar dugula, berau gabe ez baitago ino-
ra heltzerik.

Bilbon bizitakoa ilusio ez-tanda izugarria izan zen. Indar elkartrukea, eraldaketaren aukera egunero hartzen dugunon topaketa. Buruan izaten ditugun ideia perfektuek eta ezagutu gabeko ametsek askotan sortzen dizkiguten frustrazioak alde batera uzteko aukera eduki genuen, geure buruak ahalge sentitzeari utzi genion, eta geroa gure aurrean egin, ikusi, elkarbanatu, marraztu eta gozatu ahal izan genuen. Geure ametsi gustua hartu genien. Zer zapo dute, zein usain... zelako itxurak har ditzaket. Geroa gaurkotu genuen, eta desiratzen dugun Euskal Herria hatz puntekin ukitu genuen. Mila harresi eraitsi, batzen gaituena eskuetatik heltzeko baliatu eta ukabilak altxatu genituen sistema honi ukabilkadak elkarrekin emateko, arrakalak sortu eta denon artean suntsitzeko.

Sistema kapitalistaren asimilazio gaitasuna ere gogoan izan genuen, kontuan hartu beharreko arrisku gisa, eta agerian geratu zen konpromiso indibidualak bezain ezinbestekoa dela kolektiboen antolakuntza. Iraultza egingo badugu, gaurdanik bizi eta antolatuz izango da. Euskara, feminismoa, sozialismoa, ekologismoa... Finean, JUSTIZIA, hemen eta orain eraikiz. ◀

Leioa

«Aita Santuarengan konfiantza osoa dugu»

Sexu-abusuak salatu dituen Gazteluetako ikasle-ohiaren abokatu Leticia de la Hozen ustez, Fedearen Doktrinarako Kongregazioak dauka Elizak «ikerketa egin ez» izanaren errua.



Getxoko epaitegian, tramitera onartu dute gazteak aurkeztutako kereila. © LETICIA DE LA HOZ

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Gaztelueta ikastetxeko zuzendariaren arabera, «Frantzisko aita santuak bertan behe-
ra utzi du» bertoko irakasle ohiak 12 urteko ikasle bati orain urte batzuk egindako ustezko sexu-abusuen gaineko ikerketa. Gaztearen sendiaren eta abokatuaren iritziz, oster, ez da egon ikerketarik.

Elizak ustezko sexu-abusuak ikertu ez dituela uste duzue?

Fedearen Doktrinarako Kongregazioa-gaz, desengainu itzela hartu dugu; familia eta ni neu seguru gaude honen guztiaren berri ez daukala Aita Santuak. Jakiten duenean, ikerketa abiatuko du.

Apezpiku-batzarrak berak esan du ez dela batzartu sendiagaz.

Ezin da ikerketa bat bertan behe-
ra utzi, zabaldu ere egin ez denean; ikerketarik ez da egon. Aita Santuak Fedearen Doktrinaren Kongregazioaren esku utzi zuen auzia; eta erakunde horrek lagun bi baino ez zituen bidali, maila pertsonalean, familiarekin biltzeko. Nik neuk galdetu nien ea Fedearen Doktrinaren Kongregaziokoak ziren; Apezpiku-batzarreko kide moduan aurkeztu zuten euren burua.

Batzar hori zertarako izan zen?

Aita Santuaren berotasuna helarazteko topaketa baino ez zen izan; ez ziguten adituen frogarik eta txostenik eskatu, gaztearekin ez ziren bildu... Hori gutxi balitz bezala, inork ez dio komu-

nikatu ofizialki familiari ikerketa itxita dagoenik. Izan ere, auzian inolako alderdirik ordezkatzan ez duen Gazteluetako zuzendariak komunikabideetan egindako deklarazioen bitartez jakin dugu. Burugabekeria bat da hori guztia!

Elizak ikerketa hasteko edo berrartzeko esperantzarik badu familiak?

Aita Santuarengan konfiantza osoa dauka familiak.

Zein izan da Gazteluetako arduraduen jarrera?

Hasieran bazirudien gurasoak lagunduko zituztela. Izan ere, irakaslea ingelesa ikastera bidali zuten atzerrira. Geroago, harreman guztiak eten egin zituzten. Orain, laguntzarik ez dute ematen; sua pizten ari dira.

Getxoko epaitegiak tramitera onartu du zuek aurkeztutako salaketa.

Hala da. Irakasle ohia auziperatu dute, sexu-abusuak egotzita. Horrek esan nahi du zantzuak badaudela delitua gertatu dela frogatzeko. Hain zuzen ere, froga-fasean gaude orain.

Aldeko sententzia batek gazteak ustez sufritutako mina arintzen lagunduko luke?

Gazteari arreta ematen dioten mediku guztiek uste dute beharrezkoa dela aldeko sententzia bat mutila erabat osatzeko; eta izan ditzakeen errudun-sentimenduak uxatzeko balioko luke, bide batez. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)

info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



30. Urteurrena

XURRUT

Pizza - Bar

Musika zuzenean

Hormazalanda Enparantza Plaza, 2

946 771 389 GORLIZ



xurrut.com



Erandio

Ikasketak ezagutu, aukeratzeko



Ezagutu aukeratzeko ekimena 2009an abiatu zuten. EIA

Ezagutu aukeratzeko ekimena prestatzen dabil Udala, DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko ikasleak laguntzeko, informatuz.

Izenak dioenez, *Ezagutu aukeratzeko* proiektuak orientazio akademikoa eta profesionala eskaintzen du. Onuradunak Erandioko ikasleak dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailakoak, bertan ala kanpoan ikasten duten gorabehera.

Era berean, programa zuzenduta dago ikasle horien gurasoei edo tutoreei zein Erandioko enpresariei. Izan ere, helburua da gazteek euren ikasketak eta etorkizuneko lan-kontratazioak ezagutzatik abiatuta aukeratu ahal izatea; beti ere, parekidetasuna oinarri

izanda. Datorren azaroaren 24an, ikasleek guraso eta tutoreentzako aurkezpene egingo dute Derion. Saio horretan, informazio gehiago izango dute, seme-alabei lagundu ahal izateko, haien etorkizun profesionala aukeratzeko dutenean. Sarrera doakoa eta libre izango da, leku denak bete arte; baina, aurretik izena eman beharra dago, eta, daborduko, eman daiteke.

Saio gehiago

Ekimen gehiago egitea aurreikusi dute: hainbat sektoretako profesionalak ikastetxeak bisitatu eta euren lan-esperientzien berri ematea; ikasleek enpresetara bisita gidatuak egitea; eta enpresaren batean goiza egitea, bertako behargin bati ohiko lanean lagunduz. Erandioko Udal Gazte Sailak eta Txorierriko Mankomunitateak sustatzen dute ekimena. ◀

info+: Ezagutu.txorierriarvalley.com

GEDk hausnarketa «eskura» ipiniko du

Erandioko Gure Esku Dago *Eskura* hausnarketa-prozesuan murgilduta dabil asteotan. Ekimen horren barruan, eztabaida egingo dute urriaren 30ean, barikua, Astrabuduan. 19:00etatik aurrera, ikasturte honetako gakoan gainean egingo dute berba Josu Murueta kultur etxeko gela urdinean.

Pasa den ekainaren 21ean «Erabakiaren Aroan» sartu ginela esan zuen Gure Esku Dagok, eta agindu zuen uda ostean, pauso berriak emango zituela erabakia ahalbidetuko zuen norabidean. *Eskura* hausnarketa ei da aro

berri horren lehenengo urratsa: herriarrek zehaztea Gure Esku Dagok hurrengo hiru urteko epean izango duen ekinbidea. Hainbat udalerritan egingo diren herri-kontsultak «bideratzea eta bidelagun izatea» da Gure Esku Dagoren helburuetako bat, eta asmo hori «txukun» betetzeko dinamikaren egitekoa, jarduera, antolamendua eta finantzamendua zehaztu gura ditu *Eskura* prozesuak. Azaroaren 9ra arte, txostenari ekarpenak egin ahal izango dizkiote inskribatutako herritarrek, bileretan zein sarean. ◀

info+: Gureeskudago.eus/eskura

Benjamin Anaia plazan, lanak aurrera

Pasa den urriaren 20an hasi zuten Altzagako Benjamin Anaia plaza-ko obren hirugarren fasea. Lan horiek lau hilabete barru amaitzea aurreikusi du Udalak. Denbora tarte horretan, saneamendua hobetu eta konpondu gura dute. Era berean, irisgarritasuna hobetzeko hainbat neurri hartuko dute; berbarako, espaloiak beherago ezartzea eta espaloien zabalera handitzea. Hala, oinezkoari lehentasuna eman gura diote, ibilgailuaren aurretik. Azkenik, Erandioko Udalaren Obrak eta Zerbitzuak Arloak apainketa-lanak ere iragarri ditu. Inguruan loreak eta zuhaitzak landatuko dituzte. Lanak amaitu bitartean, zirkulazioa aldatu dute. ◀

Udal busaren zerbitzu berezia, domekan

Erandiobusak ibilbide eta ordutegi bereziak eskainiko ditu domekan, azaroaren 1ean, Domu Santugaz bat eginez. Egun horretan, ohitura da kanposantuetara joan eta hildakoak gogoratzea eta omentzea. Hain zuzen ere, zeregin hori errazteko zerbitzu berezia emango du Erandiobusak. Goizeko 09:00etatik 14:00etara, orduro autobusa irtengo da Astrabuduko Iturribengoa zeharbidetik San Agustin hilerriera, Altzagako Legazpi kaleko gelaletatik pasatuz. Itzuliko bidaiak ere orduro izango dira, 09:30etik 14:30era. Gero eta jende gutxiago joaten bada ere, oraindino milaka dira azaroaren 1ean hilerrietara hurbiltzen diren uribekostarrak. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

txakoli mota ganeTx.
txakolina

leioa Urbe enpedia 34 (Alkandada Parke) Goheri Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

LUBERRI Basolanak S.L. LOREZAINZA

SGS Nº ES-109014 SGS Nº ES-109015

- Soropila Ezartzea**
Luzerria prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lumbeko organitzeko lanak eta beste lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, organitzeko, eguraztea, aratzea eta desinfectatzea, berrikalkatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak**
Hasteko, mantentzeko, beritzeko, zuhaika apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea**

Axpe ibaiertza 28A behelko solarria B12 lokalak (ERANDIO) Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

Sopela

En tierra de sangre y miel filma gaur, eguena, Kurtzion

En *tierra de sangre y miel* filma emango dute gaur, eguena, genero-ikuspegiko zinema-zikoaren barruan. Itzartu emakumeen taldeak antolatzen du zikloa hamabostean behin. Emanaldia 18:00etan hasiko da, Kurtzio kultur etxean. Angelina Joliekin zuzendu zuen filma 2011n, 90. hamarkadako Bosniako gerraren inguruan: gerra baino lehen, Danijel serbiar sarjentua eta Ajila bosniar artista musulman gaztea elkarregaz maitemindu dira, baina gatazkan nahastuta, euren arteko harremana eta elkarrekiko leialtasuna kolokan egongo dira. ◀

info +: www.sopela.eus**Euskaraz olgetan programaren azken saioa, domekan**

Aurtengo edizioa amaitzera doa: Euskaraz Olgetan programaren azkenengo saioa egingo da domeka honetan, azaroaren 1ean, 12:00etatik 14:00etara bitartean. Domekaro legez, Larrabasterrako Urgitxieta plazan egingo da ekimena. Hala, azkena izanda, domekarako, ekitaldi berezia antolatu dute umei begira; izan ere, magia tailerrean parte hartu ahal izango dute sopeloztar txikiek. Uribe Kostako familia artean euskararen erabilera bultzatzeko helburua dauka Euskaraz Olgetan programak, hainbat ekimenen eta tailerren bitartez. ◀

info +: www.sopela.eus

SOPELA UDALA

Erdibana antzezlan, bariku honetan, Kurtzio kultur etxean

Jose Ramon Soroizek eta Iker Galartzak antzeztuko dute komedia beltz eta dibertigarri hori, Begoña Bilbaok zuzenduta.

Txalo Produksioak taldeak *Erdibana* antzezlan ekarriko du ostiral honetan, urriaren 30ean, Kurtzio Kultur Etxera. Emanaldia 20:00etan hasiko da, eta 6 euroan eros daitezke sarrerak. Antzezlari umoretsua da *Erdibana*: Jordi Sanchezek eta Pep Anton Gomezek idatzi zuten, Jose Ramon Soroizek eta Iker Galartzak taularatuko dute, eta Begoña Bilbao Lejarzegik zuzendu du.

Istoria iluna eta dibertigarria ei da. Batetik, urte gehiegi dituen ama bat,

enbolia eta gripeak jota, eta hiltzeko batere gogorik ez duena. Bestetik, seme bi. 50 urte inguru ditu batek, eta hondoratzen dabilen enpresa baten ugazaba da; urruntzen ari zaio erretiroa. Besteak 42 urte ditu; ama zaindu, bainatu eta orrazten du, eta ia hil ere egin du. Libreta asko, eta aurrezki gutxi; «oraintxe bertan» saldu behar den etxe bat, eta gau amaiezin bat. Ez dute ama sendatzea nahi, amarena ez baita ez bizitza ez ezer ere daborduko, eta amari laguntzeko moduak asmatzen hasten dira, bultzadatxo bat emateko. Hura hiltzeko. Elkarriketa biziz eta naturalez, adinekoen zaintzak dakarren nekea nahiz anaia bien arteko harreman gatazkatsua jasotzen dituenak. Barre egiteko hitzordu perfektua da, ikusleak identifikatuta sentituko ei diren komedia lehergarria. ◀



SOPELA UDALA

Putxera Egunerako berotzen dabiltza sopeloztarrak

Azaroaren 7an izango da aurtengo Putxera Eguna, Marmiton Kolektiboak antolatuta. Izen-emateak egunean bertan egingo dira, goizeko 09:00etatik 11:00etara bitartean. 12:00etatik aurrera aurkeztuko dira, berriz, putxerak edo lapikoak. Azken edizioa arrakastatsua izan zen oso: 152 putxera aurkeztu zituzten, horietatik 75, Sopelakoak. Gastuei aurre egiteko, udalaren laguntzaz (sariak) eta hainbat tabernaren babesaz gainera, zozketa antolatzen dute: ohiko tabernetan eros daitezke txartelak (10 zenbakiko txartela, 2 euroan). Marmiton Kolektiboak espero du azaroaren 7an Sopela putxera erraldoi bihurtzea, Pepetxin lagunaren omenez. ◀

75, Sopelakoak. Gastuei aurre egiteko, udalaren laguntzaz (sariak) eta hainbat tabernaren babesaz gainera, zozketa antolatzen dute: ohiko tabernetan eros daitezke txartelak (10 zenbakiko txartela, 2 euroan). Marmiton Kolektiboak espero du azaroaren 7an Sopela putxera erraldoi bihurtzea, Pepetxin lagunaren omenez. ◀

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Ibarre 9 / 48600 SOPELA
TF: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

LA LURREN
Musikak

GOSARIAK, PINTXOAK, KORAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko aldean)

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus



Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus





B aldea

UNAI
BREA GONZALEZ
Argiako kazetaria

Organikoaren edukiontzia, gogoan zaitugu

Uztail erdian hainbat hondakin-edukiontzi erre zuten Sopelan. Gaiak ez zuen oihartzun handirik izan, ez zen adierazpen instituzional arranditsurik egin, alarma sozialik ez zen piztu. Euskal Herrian ondo eza-gun dugu ekintza baten larritasuna ez dela ekintzagatik beragatik neurtzen, motibazioagatik baizik.

Zutabe honen helburua ez da, hala ere, askatasunaren alde edukiontzi bat erretzeari terrorismo esaten dion eta besterik gabe izorratzeagatik –edo auskalo zergatik– edukiontzi bera erretzeaz txintik esaten ez duen sistema baten kode moral higuigarriak salatzea. Zutabe honen helburua askoz prosaikoagoa da: hiru hilabete eta gero, oraindik, gure etxe azpian hondakin organikoetarako edukiontzirik gabe gaudela gogorarazi besterik ez nuke nahi.

Hala ere, eta dena kritika eta purrustada izan ez dadin, aurrera jarraitu baino lehen eskerrak eman nahi nizkieke gure erakunde, udako piromano –baina ez terrorista– haren erasoaldiaren ondorioz auzunean izandako beste biktima, plastikoen edukiontzi beilegia, atzera ipintzeagatik. Erre eta bi hilabetera.

Orain, organikoarena berreskuratzea besterik ez zaigu falta. Horrela, ez ditut poltsak kalean utzi beharko, azken hiru hilabeteetan egin izan dudana bezala. Gaur jakin dudanez, udalari dagokio falta den edukiontzia eskatzea, eta aldundiari ematea. Erakunde biak daudenez EAJren esku, eta jeltzaleak Zabalgarbi errauskailuan oinarritutako hondakin-kudeaketa ereduaren defendatzaile sutsuak –barkatu, adoretzuak– direnez, eta hondakin organikoak behar bezala biltzeak Zabalgarbiri bere bazkaren oso portzentaje handia kenduko liokeenez... susmo txarrak edukitzen hasi beharko nintzateke? ◀

Berango

Ikasleak eskolara oinez joatea gura dute

Berango Merana eskolara oinez joateko egitasmoaren lehenengo pausoa eman dute; ikasturteko azkenengo hiruhilekoan martxan ipintzea aurreikusi dute.



Urdulizen jarri zuten martxan iaz Eskolara Oinez egitasmoa.

Ikasleek eskolarako joan-etorriak modu iraunkor, autonomo, osasuntsu eta seguruan egiteko, Eskolara Oinez proiektua martxan ipini gura dute. Horren nondik norakoak azaltzeko bilera egin zuten urriaren 20an, Berangoeta kultur etxean. Bertan, eskolako ikasleen gurasoei proiektua azaldu zieten: zertan datzan, zeintzuk diren helburuak, nortzuk izango diren parte-hartzaileak... Hala ere, antolatzaleek jakinarazi dutenez, bilera hori lehenengoa baino ez da izan, «ikusitako informazio gehiago eman eta zabaltzeko beharra dagoela». Laster liburuxkak banatuko dituzte Berango Merana eskolan, batzarretara ez doazen gurasoek proiektuaren gaineko informazioa jaso dezaten.

Ekimena ez dute berehala martxan ipiniko; ikasturtean proiektua landu, lantaldea sortu, diagnostiko bat egin, gaia ikasleakaz landu, eta ibilbideak diseinatuko dituzte, besteak beste. Ostean, ikasturteko azken hiruhilekoan abiatuko dute egitasmoa, Mankomunitateko teknikariek bultzatuta. ◀

Gau sorgindua ospatuko dute urriaren 30ean

Gau sorgindua ere ospatzen hasi dira gurean. Mozorro beldurgarriak, zizelkatutako kalabazak, ikarak... Halloween festa ezagunak ezagutgarri horiek guztiak batuko ditu beste behin ere Berangon: udalerriko kaleak sorginduko dituzte. Horretarako, hilaren 30ean, barikua, kalabazak apaindu eta jolas beldurgarriak egingo dituzte Ludotekan, 20:00etatik aurrera. Ondoren, 22:00etan afaldu, eta 24:00etan film bat proiektatu, istorioak kontatu eta sopesa ugari egongo dira. 2004 eta 2006 bitartean jaiotako neska-mutilak gaueko 24:00ak arte geratuko dira; 2001etik 2003ra jaiotakoak, berriz, bertan lo egiteko aukera izango dute; lo-sakua eroan beharko dute. ◀

Bueltan da ume zein nagusientzako Ibilaldi Neurtua

Azaroaren 1ean XXXIII. Ibilaldi Neurtua izango da Berangon, udalerriko txoko ezkutatuak, auzo ezberdinak eta baserri galduak ezagutzeko egundoko aukera, «giro jator eta euskaldunean, gainera», antolatzaleen berbetan. Ohi den legez, egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako, mendi-buelta, hamaiketako, triki-poteoa, umeentzako tailerrak, bazkaria, kankak, sariak... «eta, noski, euskal presoekiko elkartasuna eta Sei Herri Libre aldarria», gogorarazi dute. Egitaraua goizeko 08:15ean hasiko da, nagusien izen-emateagaz Sei Herri tabernan; irteera 09:00etan izango dute. Txikiek, ostera, 09:00etan izena eman, eta ordu erdi beranduago abia-



tuko dute ibilaldia. Nagusien ibilbidea 16 kilometrokoa da, eta txikiena, 8 kilometrokoa. Mendi-buelteren ostean, 15:00etan bazkaria egingo dute frontoian, 7 euroren truke. Txartelak egunean bertan salduko dituztela iragarri dute arduradunek. ◀

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

OSTAIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

hiruka
Urbe Kostako astekaria

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa hemen agertzea gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus



Urduliz

Publikoa gurago dute

Urdulizko ospitalearen inguruko informazio guztia eta zerbitzua «%100 publiko» izatea eskatu dute sindikatuek.

Zerbitzuak zelan kudeatuko dituzten azaldu barik, Urdulizko ospitalea 2016rako zabalduko dutela iragarri izana kritikatu dute Osakidetza sindikatuek. Era berean, gaur egun dagoen «desinformazioa» dela-eta, Urdulizko ospitalearen Funtzio Planaren eta Zerbitzuen Kartaren inguruko informazio gaurkotua eskatu dute sindikatuek Eusko Jaurlaritzaren Osasun Batzordean. Horrez gainera, ospitaleak izango dituen langile- zein lanpostu-kopuruen aurreikuspena eskatu diote Giza Baliabideen Zuzendaritzari, langileen ordezkaria-



Osakidetza sindikatuek kontzentrazioa egin zuten eguaztenean Alangoko Osasun Etxean..

kaz «lan-baldintza guztien inguruan negoziatzea» eskatzeagaz batera. Azkenik, zerbitzu guztiak «zuzenean Osakidetza kudeatzea» eskatu dute, garbiketa-, mantentze- eta sukaldaritza-zerbitzuak barne. Urdulizko ospi-

talea %100 publiko izateko «mobilitatzea» beharrezkoa dela esan ostean, elkarretaratzea egin zuten urriaren 28an Algortako Alangoko osasun zentroan, Uribe Kostako Erakunde Sanitario Integratuaren egoitza dena. ◀

Zortzi langabeturi sei hileko enplegua emango dio Udalak

Uribe Kostako Behargintzagaz batera, Udalak martxan ipiniko du Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzak programa. Lanbiden inskribatuta dauden udalerriko langabeei zuzendutako dago ekimen hori. Sei hilabeterako lanaldia eskainiko diete zortzi lanbarkori: lau peoi, lehen mailako ofizial igeltsero bat, lehen mailako ofizial margolari bat, arkitekto tekniko bat eta administrazio laguntzaile bat. Hori horrela, Lanbiden eskatutako lanbide-moten artean, honakoek egon beharko dute jasota derrigorrez: peoia (Herri Lanetako peoia, oro har), lehen mailako ofizial igeltseroa, lehen mailako ofizial margolaria, arkitekto teknikoa eta administrari-laguntzailea. Programan parte hartu gura dutenek Lanbideko curriculum vitaean aldaketarik egin behar badute, urriaren 30a izango dute azken eguna. ◀

info+: www.urkobe.net

Plentzia

Gobernu-taldeak publiko egin ditu Udalbatzaren soldatak

Plentziako gobernu-taldeak publiko egin ditu Udalbatza osatzen duten zinegotzien soldatak. Hala, barbarako, David Crestelo alkateak urteko 32.870 euroko soldata gordina du arduraldi osoan jarduteagatik. Uztaileko osoko bilkuran gehiengo osoz adostu zituzten, osoko bilkuretar, batzorde informatiboetara eta gobernu-batzordera joateagatik jasoko dituzten ordainsariak. Udalak datu ekonomiko horiek guztiak batzen dituen bandoa kalera-tu du orain. Horren arabera, alkateak, Udaleko liberatu bakarrak, 32.870 euroko soldata finkoa du, eta osoko bilkuretar eta batzordeetara joateagatik

ez du jasoko ezelako dietarik. Soldata hori jasotzen zuen liberatu batek aurreko legealdian. Elena Deba alkateordeak, berriz, 15.000 euroko soldata gordina du urtean, arduraldi erdiagatik; Debak ere ez du bestelako ordainsaririk jasoko osoko bilkuretar eta batzordeetara joateagatik. Gobernu-batzordea osatzen duten EH Bilduko eta Independentietako zinegotziek 244 euro jasoko dituzte, urte barruan egiten diren 22 bilera bakoitzagatik. Osoko bilkuretar joateagatik 78 euro jasoko dituzte zinegotziek; batzorde informatiboetara joateagatik, berriz, 48,5 euro. ◀

Uribe Kosta

Kukutzaren alde egiteagatik, 9 hilabeteko espetxe-zigorra

Bilboko auzitegiak bederatzi hilabeteko espetxe-zigorrera kondenatu ditu 19 gazte; horien artean daude Xabier Otxoa itzubaltzetarra eta Gorka Tetua urduliztarra. Kukutza III gaztetxea eraitsi ostean, Errekalden izandako istiluetan «desordena publikoa» eragitea leporatu diete horiei guztiei. Horrez gainera, 84.000 euroko kalteak ordaindu beharko dituzte. Irailean epaitu zituzten 19 lagunei zigor bera ipini die epaileak, desordena publikoak «adostuta» egin zituztelakoan. Kukutza auziko abokatueta bat den Iñaki Carrrok «oso arrarotzat» jo du epaitutako gazte denak zigortu izana, «baldintza oso desberdinetan egin zitelako aurre epaiketari». Hori horrela, epaiak ez



Gogor oldartu zen Ertzaintza egun horretan.

duela inolako oinarri juridikorik salatu du, epaileak ez zuelako onartu ere egin istiluetako bideoak ikustea; «egun horretan Errekalden egoteagatik soilik kondenatu dituzte». Abokatuak helegitea ipiniko dutela iragarri dute. ◀

Gorliz

Oinezkoak babesteko berbaldia, azaroaren 15ean

Oinezko nagusiek errepidean euren burua babesteko ohiturak bultzatu gura ditu Gorlizko Udalak. Hori horrela, modu autonomoan oinez dabilen 64 urtetik gorako pertsonen zuzendutako berbaldia egingo dute azaroaren 15ean, domeka, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak antolatuta. Horretan, arauak errespetatzeko

jokabide seguruek zer onura dituzten ekarriko dituzte gogora: semaforoa berde dagoenean zeharkatzea, ibilgai-luak oinezkoen pasabidean gelditu direla egiaztatzea, etab. Berbaldira bertaratzen direnei iritzia eskatuko zaie administrazioek har ditzaketan neurrien gainean. Aurretik izena eman beharra dago, Jubilatuen Etxean. ◀

Olentzeroren etxea ezagutzeko txangoak antolatu dituzte

Etxeko txikiek Olentzeroren etxea ezagutzeko Izenaduba basora joateko txangoa antolatu du Uribe Kostako Mankomunitateak. Abenduaren 14an, astelehena, joango dira; antolatatzaileek jakinarazi dutenez, alde zurretik izena eman beharra dago. Mankomunitateko udalerrietan erroldatuta daudenek azaroaren 9tik 15era bitar-

tean eman ahalko dute izena. Zazpi urtera arteko neska-mutilak doan joan ahal izango dira; 8 urte edo gehiago dituztenek 8 euro ordainduko dituzte. Mankomunitateko herrietan erroldatuta ez daudenek azaroaren 16tik 22ra egin beharko dute. Bi urtera arteko umeak doan joango dira; gainerakoek 8 euro ordaindu beharko dituzte. ◀



Bigarren deialdia, Lauka Teatroko lagunek lortu zuten, Xabier Mendigurenek 1995ean idatzitako *Amodioaren Ziega* antzezlanaren oholtzaratze bereziagaz. ANBOTO.ORG

ZUbi, antzerkia sortzeko



Proposatutako euskarazko antzerki-proiektu berrien artean, bat aukeratuko dute abenduaren 4a baino lehen. Azaroaren 16ra arte aurkez daitezke egitasmoak.

Udagoienagaz batera, ZUbi egitasmoaren hirugarren deialdia aurkeztu dute Kultur Leioak, Durangoko San Agustin Kulturguneak, Hameka Karrikako Arteen Fabrikak, Zornotza Aretoak, Aulestiko Artedrama Topaketak, Baxe Nafarroako Herri Antzokiak, Eloorrioko Arriola Aretoak eta Zumaiako Udalak. Euskaraz lan egiten duten antzerki-sortzaile berriei laguntza emate

tea da ekimenaren helburua; aurkeztu diren proiektu denen artean, bat hautatuko dute, horri bultzada emateko. Hala, hautatutako sortzaileari edo sustatzaile-taldeari sorkuntzarako espazioak utziko dizkiote, eta lanaren premietara egokitutako laguntza (artistiko, tekniko eta kudeaketakoa) eskainiko diote. Horrez gainera, ekoizpenerako hainbat diru-laguntza jasoko ditu. Azkenik, egitasmoan parte

hartzen duten zortzi guneetan emandak egiteko aukera edukiko du, Kultur Leioa barne. Azaroaren 16a izango da proposamenak bidaltzeko azkenengo eguna. Hala, euskarazko antzerki-proiektu berriak helarazteko,

Kultur Leioa dago ZUbi egitasmoa bultzatzen duten Euskal Herri osoko eragileen artean

ZUbi egitasmoaren webgunean sartu beharko dute sortzaileek; *proiek-*

tua izeneko ataleko formularioa jaitsi, bete eta posta elektronikoz bidali beharko dute. Horrez gainera, gehieenez 3 MB dauzkan artxiboa bidal daiteke informazio osagarriagaz. ZUbi-ko bultzatzaileek abenduaren 4a baino lehen jakinaraziko dute zein proposamen aukeratu duten.


«ZUbi ez da ohiko diru-laguntza deialdi bat; harago joan gura duen egitasmoa da, sorkuntza-beharretara egokitu eta euskal sortzaileen jarduerara profesionalizatzea ahalbidetuz», azaldu dute sustatzaileek. Lan berriak «globalki» bultzatu gura dituzte. ◀

izen-ematea: www.zubi.es / ehkozubi@gmail.com

Gontzal Mendibili gorazarre, Plentzian

Zeanurin sortutako Gontzal Mendibil euskal kantautoreari omenaldia egingo dio bariku honetan, urriak 30, Plentziako Kantagune taldeak. Hala, 19:30ean ipini dute hitzordua, Goñi Portal kultur etxean; ekitaldia amaituta, kantu-jira egingo dute herriko kaleetan. Kantaguneko kideek azaldu dutenez, ondoko lekueetan egingo dituzte abesteko geldialdiak: Eliza plazan (21:00), Erribera kalean (21:30) eta Zubiko plazan (22:00). Amaitzeko, afari-omenaldia (15 euro) egingo dute Jai Alai udal pilotalekuan, 22:30ean; horretara joan gura duenak aldeztu aurretik izena eman beharko du.

Xabier Castillo Miota *Xeberrigaz*



© GONTZAL MENDIBIL

egin zituen Mendibilek lehenengo kanta-saioak, 70eko hamarkadan; ondoren, bakarlari bideari ekin zion. Denbora horretan, hamar diskotik gora argitaratu ditu kantariak. ◀

izen-ematea: plentzia.kantagune@gmail.com

Umore Azokan izena emateko epea zabalik dago Leioan

Maiatzaren 19tik 22ra egingo dute Leioako Kale Artisten XVII. Azoka; daborduko, antolatzaileek zabaldu dute bertan parte hartzeko proposamen-artistikoak bidaltzeko epea. Kale-antzerki, musika, zirku, dantza eta bestelako lanak onartuko dituzte, umeentzat, familientzat zein helduentzat. Halaber, «batez ere Estatuan» estreinakoz, edo 2015ean aurkeztutakoak zein 2016an aurkeztuko direnak izan behar dute; oso modu positiboan balioetsiko da Umore Azokan bertan estreinatzeko proposamenak. Interesa duten konpainiek azaroaren 15era arte daukate izena emateko. ◀

izen-ematea: www.umoreazoka.org

Getxo Jazz jaialdiko talde-lehiaketara deitu dute

Getxoko Nazioarteko 40. Jazzaldia 2016ko uztailaren 1etik 5era egingo da; horretan parte hartu gura duten talde denek inskribatzeko aukera edukiko dute otsailaren 13ra arte. Jazz-musika jotzen duen Europako edozein talde aurkez daiteke lehiaketara, jorra edo estiloa gorabehera, Getxoko Kultur Etxeak adierazi duenez. Parte hartzeko gehieneko adina 30 urtekoa izango da, 2016. urtean betetzekoa eta izena emateko orduan egiaztatu beharrekoa. Taldeak grabatutako CD bat eta kalitate oneko argazki bat ezinbestekoak dira. ◀

izen-ematea: isaitua@getxo.eus

www.getxo.eus/jazzgetxo

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko **urriaren 29**tik **azaroaren 4**ra arte



hiruka.eus



Askotariko diziplinatan ibilitako musikariek osatzen dute talde madrildarra. © MASTRETTA


Mastretta madrildarren musika, arimagaz

Musika Arimarekin zikloaren barruan, Mastretta talde madrildarrak kontzertua eskainiko du bari-kuan, urriak 30, Kultur Leioan. Saioa 21:00etan izango da; sarrerak 15 euroan egongo dira. Nacho Mastretta konpositore eta klarinete- eta akordeoi-jolea buru dutela, ibilbide luzea daukaten musikariek osatzen dute taldea: Pablo Novoa (gitarra), Jorge Santos Coke (perkusioa eta bateria),

Luca Frasca (pianoa, organoa, akordeoia eta perkusioa), Pablo Navarro (kontrabaxua), Marina Sorin (biolontxelo, biolin-tronpeta), Diego Galaz (biolin-tronpeta) eta David Herring-ton (tronpeta). Askotariko diziplinatan ibilitakoak dira denak; euren esperientzia guztiek orkestraren soinua eta nortasuna aberastu dute.

Hala, disko berria prestatzen dabilza: *El Reino de Veriveri*. Hain zuzen

ere, lan hori osatuko duten kantak joko dituzte Kultur Leioako emanaldian. Adituen arabera, 2004an sortutako orkestra bikainaren musika-garapena erakusten du disko horrek. Kontzertuak emateaz gainera, pelikuletako soinu-bandak grabatu eta dozenaka ekitaldi egin dituzte diziplina ezberdinetako artistakaz. *Vivan los músicos* euren aurreko lana, gainera, berriro argitaratuko dute. ◀



GORLIZ

Amilami izenburuko ipuin-kontaketa musikatua, zapatuan

Urriaren 31n, *Amilami* ipuin-musikatua eskainiko du Pantzart taldeak, Sertutxena eraikinean. Emanaldia 18:30ean hasiko da; sarrera, doan. Hala ere, puntualitatea eskatu dute bertoko ardura-dunek; 18:40ean itxiko dituzte ateak. Saioa 4 eta 11 urte bitarteko umeei zuzenduta dago.

Juan Kruz Igerabideren Amilamiren ipuinean oinarritzen da ikuskizuna, eta tradiziozko kontakizunetatik abiatzen da; lamien istorioak kontatuko dituzte Pantzart taldeko kideek, eta gertaera fantastikoak gaur egungo gizartean kokatuko dituzte. Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka dago muinean; kontaketan, usain-belarrak, sehaskantak, aho-korapiloak eta hainbat instrumentugaz egindako musika txertatzen dira. Umeek musika-tresnak jo eta usain-hostoak etxera eroan ahal izango dituzte. ▶

2015/10/29 - 2015/11/02

Magia tailerra

Hainbat herri | Uribe Kosta
Euskaraz Olgetan egitasmoa. Urriaren 29an, Plentziako Ontziola plazan (17:30); hilaren 30ean, Urdulizko Antsonekoa plazan (17:30); 31n, Gorlizko Ibarreta plazan (12:00); azaroaren 1ean, Larrabasterrako Urgitxeta plazan (12:00), eta azaroaren 2an, Armintzan (17:00). Doan.

2015/10/29 - 18:00

En tierra de sangre y miel genero-ikuspegiko filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/29 - 19:30

Como cocinar bacalao al pil-pil de hongos berbaldia eta dastaketa

Aldai Patronatua (Algorta) | Getxo
Basozaleak elkarteak antolatutako XXV. Mikologia jardunaldiaren barruan. Ramon Caviak egingo du berba. Gaztelaniaz. Doan.

2015/10/30 - 17:30-19:30

Barikuetan Jai: sukaldaritza tailerra, euskaraz

Kultur Leioako ingurua | Leioa
Familia osorako jolasak. Euskaraz. Doan.

2015/10/30 - 17:30-19:00

Las tortugas ninja familia-filma

Andere Deuna kultur aretoa | Barrika
Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/30 - 19:00

Kontularien Kluba

Algortako kultur etxea | Getxo
Ana Apika ipuin-kontalariak *A vida o muerte* saioa eskainiko du. Gaztelaniaz. Doan.

2015/10/30 - 19:30

Gontzal Mendibili omenaldia

Gofi Portal kultur etxea | Plentzia
Plentziako Kantagunea taldeak antolatuta. Kantu-jira ere egingo dute herrian, eta amaitzeko, afaria frontoian, 15 euroan. Informazio gehiago: plentzia.kantagune@gmail.com

2015/10/30 - 20:00

Zuritos. Unos cortos de teatro antzezlan

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Contrapunto taldeak antzeztuta. Gaztelaniaz. Sarrera, Josu Murueta eta Kultura

Euskarazko hiru ipuin-kontaketa, emakumea ardatz


Azaroan Erandioko liburutegietan barenna ibiliko da Alberto Bargos ipuin-kontalari bilbotarra. Hala, hilaren 4an Altzagako bibliotekan eskainiko du *Neska eta mutilen artean*: *mundu bat* izenburuko saioa. Hilaren 12an, ostera, beste horrenbeste egingo du Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Azkenik, hilaren 20rako, Erandiogoi-koko Gizarte Etxea aukeratu dute herri-

tartez. Saio denak euskaraz izango dira; eta sarrera, doan. Ipuin-kontalariari dagokionez, Bargos Lehen Hezkuntzako irakaslea da. Hala ere, berak dioenez, ezer baino gehiago maite du istorioak kontatzea. Zenbait liburu argitaratu ere egin ditu; gehienak, gaztelaniaz. Euskaraz, *Dum-per bat kinka larrian* plazaratu zuen 2008an. ◀

Arimen Gaua ospatuko dute urriaren 31n bertoko gazteek

Mugi Leioako Gazteak taldeak antolatuta, I. Arimen Gaua ospatuko dute bertokorikuan, urriak 31. Egun guztian ekitaldiak egingo dira; nagusiki, 20:00etatik aurrera izango dira jarduerak Boulevard-ean. Besteak beste, faroltxoak askatuko dituzte. ◀

info+ www.facebook.com/leioakogazteak



Besteak beste, berba egiten duten animaliak, zuhaitz jakintsua, lamia eta ipotxa agertuko dira antzezlanean. © PATATA TROPIKALA

Baso sorgindua antzezlanana, Berangon

Halloween jaia urriaren 31n munduko hainbat lekutan ospatzen da, hemengo Arimen Egunaren antzekoa. Aitzakia horri helduz, Domu Santu egunean Patata Tropikala taldearen antzezlanana edukiko dute neska-mutilek; Morgana sorginak umeak igel bihurtuko ditu... ◀

Noiz: Azaroak 1, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Berango Antzokia
Sarrera: 3 euro

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

2015/10/30 - 20:00

Erdibana antzezlanana

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Jose Ramon Soroizek eta Iker Galarzak antzeztuta. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

2015/10/31 - egun osoan zehar

XVI. Indabada Mundiala

Txiki-Otaegi plaza (Algorta) | Getxo
Txartelak, 10 euroan salgai. Ajouria, Hator eta Salem tabernetan.

2015/10/31 - 12:00-14:00 / 16:00-20:00

Line dance, areto-dantza, hip-hop eta saltsa sariketak

Altzagako Kiroldegia | Erandio
Dance GM areto-dantzen elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

2015/10/31 - 18:00

Campanilla y la leyenda de la bestia familia-filma

Kultur etxea | Urduliz
Guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2015/10/31 - 19:00

Monster house filma

Berango Antzokia | Berango
7 urteik gorakoentzat. Euskaraz. Doan.

2015/10/31 - 19:00

Ultreia antzezlanana

Areetako musika-eskola | Getxo
Hamaika Teatrok antzeztuta. Emakumeak eszenan zirkuituaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2015/10/31 - 20:15

El desconocido filma

Kultur etxea | Urduliz
12 urteik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2015/11/01 - 11:00-14:00

XXXV. Perretxiko Erakusketa

Ontziola plaza | Plentzia
Onddoak sailkatzeko lehiaketa egingo dute eguerdian, 14 urtera arteko umeentzat. Horrez gainera, pintxo-dastaketa egingo dute, eta perretxikorik onena batu duenari saria emango diote.

2015/11/03 - 20:00

Fuerza mayor filma

Kultur Leioa | Leioa
Perseo Zineforumaren barruan. 7 urteik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Euskal Harriaren ABDak pelikula egin dute 26 euskal zuzendarik



Kkinzonaren *Deabrua debalde* film laburra. © EUSKAL HARRIAREN ABD-AK

Donostian, azaroaren 5ean estreinatuko dute 26 film laburrez osatutako ikus-entzunezko lana. Gero, herriz herri ibiliko dira aurkezten, otsailaren 14ra arte.

Katihotsak Logiako lagunek euskal alfabetoko 26 hizkietako bat egokitu zieten beste horrenbeste euskal zinegileri 2014ko udan, eta hizki horietatik abiatuta, zientzia fikziozko edo fantasiazko film-labur bat egiteko eskatu zieten;

horren emaitza da Euskal Harriaren ABDak pelikula. Sustatzaileek azaldu dutenez, euskaraz grabatzea, euskal osagaietan oinarritutako lanak egitea, eta goitik behera film laburrak Euskal Herrian ekoiztea izan ziren Katihotsak Logiako kideek «harrizainei» ipini ziz-

kieten baldintza bakarrak. Gutxi gorabehera urtebete igaro da, eta prest daukate fikzioa eta fantasia uztartzen dituen 126 minutuko film kolektiboa; azaroaren 5ean, eguena, estreinatuko dute Donostiako Fantasiatzko eta Bel-durrezko Zinemaren Astean.

Egun bat lehenago, Donostiako jaialdikoek «adeitasun osoz» prestatu dieten prentsaurreko bat ere eskainiko dute *Euskal Harriaren ABDak* aurkezteko: «Baina lasai. Iritsiko da horren berri zehaztasun gehiagoz emateko eguna». Victoria Eugenia izango da film kolektiboaren estreinaldi mundiala, eta handik astebetera, Euskal Herriko zazpi hiriburuetan eskainiko dute; emanaldi horien leku eta orduak aurrerago zehaztuko dituzte.

«Eta hortik aurrera zer? Bada, mundua konkistatzera! *Euskal Harriaren ABDak* zure herriko zinema, kultur etxe, gaztetxe, taberna, zulo, tortura-gela edo etxeko komunean eskaini gura baduzu, jarri harremanetan gurekin; harrizain bat bidaliko dugu gura duzun lekura filmagaz», amaitu dute Katihotsak Logiako lagunek. ◀

info+: euskalharriarenabdak@gmail.com

Zuzendariak

- Askatu Piztiak
- Berantiarak
- Kkinzona
- Eneko Olazabal (Jaume Gelabert eta Santi Leone)
- Katihotsak Logia
- Belegor Anaia (Andoni Jorajuria eta Patxi Dutornier)
- Robert Robichet (Pette Etxeberria)
- Chochowsky Ahizpak (Alaitz Mañes, Kattalin Miner eta Lore Lujanbio)
- AK47
- Maritalavista (Peru Magdalena eta Aritz Albaizar)
- Ziritranka Filmak (Joseba Iruretagoiena, Ander Xilban, Julen Cantalapiedra eta Ander Epelde)
- Palangana (Idoia Vidaror eta Maddi Zumalabe)
- Patatoak (Peru Villarias)
- Paradixu Zinema Zineforuma
- Islandia Produksioak
- Hedoi Etxarte
- Alexandre Garacotche
- Xumar Altzugarai
- Elsa Oliarj Ines
- Koldo Almandoz
- Iñigo Acha
- Patea Produksioak (Antton Rouget, Antton Lannes, Aritz Videgain)
- Ander Bolibar Zabala
- Jazpana! (Mikel Alvarez eta Jon Artola)
- Jorge Gil Munarriz (Moriarti Produksioak)
- Ane Urkiola (Izar Produksioak)

Bosteko 2015 erakusketa, Kultur Leioan ikusgai azaroaren 8ra arte

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren babesagaz, Arrigorriagan, Basaurin eta Zornotzan ikusgai egon da orain arte Bosteko 2015 erakusketa ibiltaria; azaroaren 8ra arte Kultur Leioak hartuko ditu hautatutako hiru artisten lanak. Abenduaren 9tik 29ra, ostera, Algortako Torrene aretoan ipiniko dituzte Ana Riaño (Bilbo), Roberto Aguirrezabala (Sestao) eta Iker Serranoren (Iruñea) artelanak. Getxokoa izango da erakusketaren azken galekua.

Bosteko ekimena 1998an sortu zen, eta harrezkero Euskal Herriko 70 artistaren baino gehiagoren lanak eza-gutarazi ditu. Riaño eta Serrano margolariak dira; biak dabilta pintura errealista garaikidearen eta figurati-boaren arloan, baina estilo desberdina-erabiliz. Aguirrezabalak argazki-gintza lantzen du, narrazio formatuan, erretratu «fikzionatuaren» eta paisaia eraldatuaren artean. Hala, euren lanak osatu da *Figurazioa eta figurazioak* izeneko erakusketa kolektiboa. ◀

Hainbat txapelketa egingo dituzte Astrabuduan, Dance GM taldeak antolatuta

Astrabuduko Dance GM areto-dantzen elkarteak antolatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo *line dance* txapelketa jokatu dute zapatu honetan, urriak 31, Altzagako kiroldegian. Dantza mota horretan sartzen dira pauso-sekuentzia zehatzari jarraitzen dioten koreografiak; dantzariak lerro bat edo gehiagotan ipintzen dira. Country musikan ohikoak dira horrelakoak.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko *Line dance* txapelketa 19:00etan izango da. Hala ere, ofizialak ez diren beste hainbat lehiaketa jokatu dira txapelketaren aurretik: Dance GM Line Dance (11:30), Karibeko dantzak (16:00), areto-dantzak (17:00) eta hip hopa (18:00). Sariak 19:30ean banatuko dituzte.

Daborduko, ez dago lehiaketetan izena emateko aukerarik; urriaren 20an amaitu zen epea. Hala ere, dantzaldiak ikusi gura dituztenak doan sartu ahal izango dira kiroldegira. ◀



Emakumeak eszenan zirkuituaren barruan izango da saioa. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Ultreia antzezlanak oholzaratuko du Areetan Hamaika Taldeak

Zapatu honetan, urriak 31, *Ultreia* antzezlanak eskainiko du Hamai-ka Teatro taldeak, *Emakumeak eszenan* zirkuituaren bederatzigarren edizioaren barruan. Emanaldia 19:00etan izango da, Areetako Andres Isasi musika-eskolan; daborduko, sarrerak salgai daude, 3 euroan.

‘Ultreia’ berba Donejakue Bideko erromesek erabili ohi dute, elkar agurtzeko; «harantzago goaz» esan

gura du. Antzezlanaren laburpenak dioenez, «hainbat ibiltarientzako bide soil bat baino ez dirudiena beste batzuei bizitza markatuko dien esperientzia bikaina izango da, agian; garrantzitsua ez da helmugara iristea, baizik eta bidea sentitzea». Azken finean, «gozatzea edo aurki ditzakegun oztopoak gainditzeko joatea da gakoa. Lehenengo aukerak zoriontsu egiten gaitu, eta, bigarrenak, indartsu». ◀

«Aresti pertsona erakusten saiatu naiz, idatzi zituenak baino»

Adur Larrea Eguren

marraskilari erandioztarrak
Gabriel Aresti: BioGrafikoa
komikia plazaratu berri du.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Gabriel Aresti euskaltegiaren ekimenez, helduen euskalduntze-zentro horri izena ematen dion idazle bilbotarraren gaineko eleberri grafikoa egin du Adur Larrea komikigile erandioztarrak. Eguen honetan, urriak 29, aurkeztuko du, Paparrean jardunaldi-tan; 19:30ean, Santutxuko Udaltegi berrian. Sarrera, doan.

Zelan sortu zen *Gabriel Aresti: Bio-grafikoa* komikia egiteko ideia?

Bilboko Gabriel Aresti euskaltegiak egin zidan proposamena; aurten hainbat ekitaldi egin dira 40 urte betetzen direlako euskal poeta eta idazle bilbotarra hil zela. Hala ere, jaiotza ospatu nahi genuen, haren heriotza baino. Ez da zenbaki biribil bat; uste dut 82 urte direla Gabriel Aresti jaio zela. Baina pentsatu genuen bere jaiotza aitzakia ederra zela proiektu berri bat sortzeko; eta komiki bat egitea ideia polita zela pentsatu zuten.

Zer topatuko du komiki berria esku artean hartzen duenak?

Ni ez naiz bereziki aditua Gabriel Arestiren bizitzan; are gutxiago, literaturan. Horregatik saiatu naiz ikuspuntu biografikoa ematen; zeharka agertzen den elementu bat da literatura. Giza-kiaren aldarre guztiak ematen saiatu naiz: nolakoa zen, zer testuingurutan sortu zen, bere kontraesanak... Bere bizitzaren azaleko soslai bat da.



Besteak beste, *H28* euskarazko hilabetekari satirikoan dabil Larrea.

Orain arte egin dituzun komikiakaz zerikusirik dauka?

Biografiarik ez neukan eginda orain arte. Gainera, oso zaila egiten zait horrelakorik lantzea; azken finean, oraingo gaiez ari zarelako askotan; bere alarguna, alabak eta lagunak hor daude. Ez da gauza bera Gengis Khani buruzko komikia egitea; kasu horretan, ez daukazu inolako ardurarik. Ez da erraza izan.

Zuk bakarrik egindako lana da, edo laguntza eduki duzu?

Lagunen eta senideen aldetik laguntza handia izan dut; Gabriel Arestiren oharrak eta irakurketak helarazi dizkirate. Askotan, beste pertsona bati ematen zizkieten, horrek niri ekarri ziezakidan. Jende askok lagundu dit, lehentxeago esan dudana: ni ez naiz aditua literaturan; are gutxiago,

aipagai dugun idazle eta poeta bilbotarraren lanetan eta bizitzan. Hasieratik, bere familiak harrera oso ona egin

“Asko lagundu zidan senideek egin zidaten harrerak, neure buruarekiko konfiantza hartzeko”

zidan; horrek asko laguntzen dizu zeure buruarekiko konfiantza hartzen, proiektuari aurre egin ahal izateko.

Zelakoa izan da komikiaren lanketa? Gabriel Arestiren gainean izateak aparteko lana ekarri dizu?

Aresti gazte hil zen, 40 urte ingururakin; hala ere, idatzizko produkzio oso handia utzi zigun. Nik egiaztatu ahal

izan dudanez, horietako idazki asko oso biografikoa dira; bere garaiari lotutakoak, askotan. Hasieran, bere lanak, tesiak eta berari buruz idatzitako artikulak irakurtzen hasi nintzen; baina ikusi nuen horrela ez nuela bukatuko hain erraz.

Gidoiari begira, idazle bilbotarraren familiarekin hitz egitea izan da lanketaren bizkarrezurra; modu naturalean egin nuen berba eurekin, euren bizipenak eta esperientzia freskoagoak ezagutzeko asmoz. Gidoia egin ostean, marrazten hasi nintzen.

Zergatik aukeratu dituzue Paparrean jardunaldiak, aurkezpenerako?

Idazle bilbotar bati buruzko komikia izanda eta jaialdia Bilbon izanda, egoki ikusten genuen. Hala ere, esan behar dut, arazoak tarteko, komikia fisikoki ez dugula bertan izango. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota: 33 €
- Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoa 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fixategi automatikoki bazeen sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jarretako eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Erabiltzaileek datuak erabiltzeko erabakia hartu behar du. Erabiltzaileek ezin dituzte datuak erabiltzeko erabakia hartu. Erabiltzaileek ezin dituzte datuak erabiltzeko erabakia hartu. Erabiltzaileek ezin dituzte datuak erabiltzeko erabakia hartu. Erabiltzaileek ezin dituzte datuak erabiltzeko erabakia hartu.

«Hemengo komunikabideek ez dute sekula esan estatu-kolpea egon zenik Ukrainan»

Ibai Trebiño Monterok (Gasteiz, 1982) Ukrainako gerraren inguruan berba egin zuen urriaren 28an, Algortako Villamonte kultur etxean. Kazetaria da, eta hiru aldiz egon da bertan, Donbass inguruan gertatzen dabilenaz informatzeko. Orain, Mikel Arregi lagunagaz batera, *Donbass*: Gerra Europaren bihotzean dokumentala prestatzen dabil.

IKER RINCON MORENO

Krimean eta Donbassen ibili zara kazetari. Hiru aldiz joan zara, eta hango egoera zuzenean bizi ondoren, bueltatu eta han bizitakoaren inguruko berbaldiak ematen zabiltza; azkenengoa, Algortan. Zelan bizi zenuen Ukrainako krisiaren hasiera? Eta zerk eragin zizun horretaz informatzeko gogo?

Aspaldi hasi nintzen Ukrainako egoerari kasu egiten, 2004ko gertaerekin, Iraultza Laranja gertatu zenean, baina ez nekien ondo zer gertatzen ari zen bertan. 2013ko azaroan berriro hasi ziren mobilizazioak, Maidan plazan. Ukrainari, garai hartan eskaini zioten europarlamentuan sinatutako elkarkidetzarako proposamena. Presidenteak esan zuen ez zuela zertan onartu. Aldi berean, Moldavian antzeko zerbait gertatu zen: Europar Batasunak elkarkidetzarako akordio bat eskaini zion, eta gobernuak onartu egin zuen. Hain justu, jendea kalera irten zen Ukrainan eta Moldavian, baina arrazoi desberdinengatik: Moldavian, akordio horren kontrakoak; Ukrainan, berriz, akordioaren aldekoak. Hala, ikusi nuen zer nolako informazio-irizpide ezberdina zegoen, bai baterekin bai bestearekin. Jende askok ez du ezagutzen Moldavian zer gertatu den; hori horrela, Ukrainan zerbait arraroa gertatzen ari zela ikusi nuen. Gero, estatu-kolpea jazo zen, eta une horretan piztu zaitzaidan apur bat Donbassera bidaiatzeko gogo.

Zelan bizi du kazetari batek Donbass bezalako leku batean gertatzen dabilen guztia?

Gogorra da. Gatazka bat dagoen toki batera zoaz, eta

zeure burua prestatu behar duzu hara joateko. Hala ere, esan dezaket esperientzia bezala oso aberasgarria izan dela, baina hara joatea nahiko gogorra da. Lan egiteko gogo handia duzu, eta nahi duzu leku guztietan egon, dena ikusi, jende guztiarekin hitz egin... Baina apur bat zaila izaten da horrelako lekuetara joan eta dena ikusi ahal izatea. Zentzu ho-

“ **Gehienak herri-milizien alde daude; ez dute onartzen ukrainar soldaduen presentzia Donbassen** ”

retan, zelan definituko nuke? Oso esperientzia polita, baina gogorra ere bai. Gogorra da sarraskiak bizi izan duten jende piloa ikustea, eta handik bueltan pena handia sentitzen duzu bertan uzten duzun jendeagatik.

Urtebete igaro da, Ukrainako ekialdean gerra hasi zenetik. Zein da gaur egungo egoera bertan?

Gaur egun, frontean dago arazoa, Donbass aldean. Bi aldeetako fronteak izoztuta daude; hau da, suteen bat dago, eta eutsi egiten diote nolabait. Adibidez, arma astunak eta artilleria handik eramaten

hasi dira. Badirudi Ukrainak onartu duela eremu hori galdu duela, neurri batean. Horrezaz aparte, Ukraina gizarte-egoera larrian murgilduta dago. Nazioarteko Diru Funtsaren maileguak eta horrek guztiak bizimodu gogorra eragin dute: oso baldintza gogorrak. Zentzu horretan, badirudi Ukraina agenda mediatikotik desagertu dela. Azkenengo egunetan, berriz, irakurri ahal izan dugu oso egoera larrian daudela eta hainbat ika-mika daudela. Adibidez, meatzariak greba bat hasi dute, eta errusinoak eta beste gutxiengo etniko batzuk matxinatu egin dira hainbat eremutan. Giroa aldrebestuta dago.

Zergatik da hain garrantzitsua Donbass?

Bertan interes asko eta handiak daudelako. Alde batetik, errusiarrek bizi direlako bertan, hau da, errusiar hiztunak dira, baina, errusiar izan baino, izae-ra-edo errusiarra daukan jendea. Ukrainarentzat, hori bada modu bat Errusia ahultzeko: Errusiako gutxiengo etnikoaren kontra joatea. Eta, beste alde batetik, interes asko daude; meatzaritzan, batez ere: lurralde oso aberatsa da, eta gasa ere badaukate. Izan ere, gasaren harira, Ukrainak sinatu zuen fracking metodoa erabiltzeko Europa mailan sinatutako lehendabiziko akordioa. Horrez gainera, inguru horrek beti izan ditu interes geoestrategiko eta materialak, eta baliabide horiek lapurtu nahi dituzte, batez ere. Horrez gainera, meatzaritzan dago oinarrituta bertoko ekonomia, eta Ukrainako lekuri industria-lena ere bada.



Nazioartetik hainbat pertsona joan dira Donbasser, milizien alde borroka egitera. Eurakaz egoteko aukera izan duzu; zer dela-eta erabaki dute borroka horretan parte hartzea?

Bai, Prizrak brigadan zeuden espainolekin egon ginen, 2014ko azaroan. Espainol horiek, hain zuzen, etxera bueltatu zirenean, atxilotu egin zituzten. Lehenengo kazetariak izan ginen horiek elkarriketatzen. Kanpoko milizianoen presentzia hori NATOren kontrako borroka batean oinarrituta dago batez ere. Azken finean, ia guztiak doaz NATOren kontra borrokatzera; horregatik biltzen dira ideologia desberdinak. Gehienak antifaxismoarekin lotuta daude, baina frantziar nazionalistak edo beste motatako miliziano batzuk ere badaude. Nik esango nuke euren helburu nagusia populazio zibila defendatzea dela.

Europar Batasunak Donbassen gertatzen dabilenaz zabaldutako informazioa “gezurra” dela diote askok. Zer ezberdintasun ikusi dituzu hedabide handiek zabaldutako eta zuk ikusitakoaren artean?

Nire ustez, irizpide aldetik oso inportantea dena eta hemengo komunikabideetan ez zaiona garrantzi handirik eman: Ukrainan estatu-kolpe bat egon da. 2014ko otsailean talde paramilitar ultraeskuindarrak ganberara sartu, eta hainbat alderditako diputatuak jipoitu zituzten. Ondoren gertatu zena estatu-kolpea izan zen, konstituzioaren kontrakoa izan zelako; hau da, presidentea kargugabetzeko, ganbera horretako diputatuen bi herenen botoak behar zituzten. Hala

ere, presidentea kargugabetu zuten, nahiz eta diputatuen hiru herenek hala ez bozkatu. Logika horri jarraituz, izugarritzko estatu-kolpea izan zen hori, eta gure komunikabideek ez dute inola ere hitz hori erabili. Hor ikus dezakegu zein izan den Europar Batasunaren eta AEBen jarrera. Gogoratu behar dugu McCain AEBetako senataria Maidan plazan egon zela pastelak banatzen eta hitzaldiak ematen. Lotsagarria, zelan ez duten aipatu estatu-kolpea izan zela! Gainera, gauza bat txarto irudikatzen saiatu dira: ematen du Errusiak eragin duela egoera hori...

Mikel Arregigaz batera garatzen zabilta Donbass: Gerra Europaren bihotzean dokumentala egiteko egitasmoa. Zer kontatu gura duzue?

Une honetan *crowdfunding* kanpaina bat jarri dugu martxan 6.000 euro lortzeko asmoz. Ukrainian zer gertatzen ari den kontatzen dugu 40 minutuko lan horretan. Zaila da guztia kontatzea, baina batez ere benetako gerra bat dela ikustaraztea nahi izan dugu, eta jendea hil egiten dela gerra batean. Batzuetan, urrunetik ikusita, ematen du gerra bat bideo-joko bat dela. Azken finean, bertan dauden drama humanoak jendeari erakutsaraztea da gure helburua. Euskal Herritik 4.000 kilometrora dagoen guda bat da, eta guk uste dugu Euskal Herrian jakin behar dugula zer gertatzen ari den Donbassen.

Zeintzuk zailtasunei egin behar izan diezue aurre dokumental hori egiteko?

Gerra batean lan egitea zaila da beti. Esate baterako, instalazio militarrek grabatzea debekatuta dago, eta horrekin hainbat arazo izan genituen. Zaila da, aurreprestakuntza bat egin behar duzu, gero bertan grabatu, ordu asko eman behar dituzu eta gero muntai egin behar duzu... Zailtasun handiak dira. Baina beno, bertan izandako zailtasun gehienak Ukraina aldean grabatutako zatiak izan direla esan genezake. Bertan jendea elkarriketatzeko zailtasunak izan genituen, bertako burokrazia dela-eta zaila delako ministro bat edo Mugarik gabeko Medikuetako kide bat elkarriketatzeko. Hala ere, orokorrean nahiko ondo joan da dena. Jendea, normalean, beti prest egon da dokumentalean agertzeko eta gurekin hitz egiteko. Hori eskertzekoa da.

Zer diote bertakoek gerra horretaz?

Bertako herritar gehienak milizien alde daude, hori argi eta garbi esan behar da. Batzuk Ukraina aldera ihes egin dute, baina bertan dauden gehienak errusiar hiltzaileak dira eta herri-milizien alde daude. Euren ulertzen dute Ukrainan estatu-kolpe bat egon zela, eta horren aurrean zilegitasun osoa daukatela euren burua defendatzeko. Gero, Donbass okupatuan, hau da, Ukrainaren kontrolpean dagoen eremuan, jendea nahiko izututa dago. Azken finean, ez dute onartzen ukrainar soldaduen presentzia eta ez dira eurekin identifikatzen.

Donetsken egin diren gerrako krimen eta zibilen kontrako erasoen lekukotza jaso duzue; zer ikusi duzue gerra frontearen?

Bai. Novosvitlivkan, Lugansketik gertu dagoen herri bat, gerrako krimen izugarriak egin dituzte ukrainar soldaduek. Bertako herritarrek kontatu zigutenaren arabera, fusilatuak egon dira. Ukrainarrek okupatu zuten herria eta hainbat lagun bahitu eta fusilatu dituzte, sakeoak egin dituzte eta horrelako hainbat kontu. Nazioarteko erakunde batzuek ere gerrako krimen horiek salatu dituzte; hala ere, Euskal Herrian oso gutxi ezagutu den gaia izan da. Hori dela eta, nahi izan dugu horren inguruan kapitulu bat egin, edo behintzat horren inguruan hitz egin, gaur egun indarrean dagoen blokeo mediatikoa nolabait hausteko helburuarekin.

“Gaur egun indarrean dagoen blokeo mediatikoa nolabait hausteko helburua dugu dokumentalarekin”

Dokumentala eginda duzuenean, horren inguruko aurkezpenak egitea aurreikusi duzue?

Bai, printzipioz Euskal Herritik egiteko intentzioa dugu; jendearekin egon, aurkezpenak egin... Baina ez bakarrik gure proiektua aurkezteko, baizik eta gertuko zerbait delako. Informatzeko beste era bat ere bada hori: jendearekin egon, jendeari aurrez aurre azaldu zer gertatzen ari den eta gure lekukotza jaso dezatela. Guk uste dugu kazetaritza egiteko beste modu bat ere badela hori, jendearekin egon, hitzaldiak eman eta gure esperientzia konpartitzea. ◀

info+: karena.eu/es/proiektua/donbass-gerra-europaren-bihotzean



Pitxitxiren azkenengo gola

Pichichi Fundazioa getxoztarra jendaurrean aurkeztu zuten urriaren 8an, Jolasetan. Futbola aitzakiatzat hartuta, umeen aldeko elkartasun-egitasmoak bultzatuko dituzte.

Rafael Moreno Aranzadi *Pitxitxi* Athleticceko jokalaria historikoki gorazarre egiteko jaio da Pichichi Fundazioa. Horregatik, golegileak lehengo aldiz jokatu zuen Neguriko Jolaseta futbol-zelaian aurkeztu zuten Fundazioa, pasa den urriaren 8an. Bertan ikusi zenez, hil eta 93 urtera ere Moreno maitatzen jarraitzen dute Athleticceko zaleek. Kontuak hala, parte-hartze zabala izan zen. Eki-

mena baliatu zuten *Pitxitxi*-k baino gol gehiago sartu duten Athleticceko jokalariei gorazarre egiteko; besteak beste, han izan ziren Rafa Iriondo, Jose Angel Ziganda, Ismael Urzaiz, Julen Guerrero, Joseba Etxeberria eta Aritz Aduriz, denera 1.085 golen egileak. Fundazioaren arabera, Morenok hainbat kirol-balio ordezkatzan ditu, golak sartzeaz gainera, «berbarako ahalegina, elkartasuna eta eredu ona». Azpima-

rratu dutenez, «inguruko jendeagaz zein hurbiltzen zitzaionagaz eskuzabal jokatzeko ospe handia zuen». Zoritxarrez, «ezin izan zuen lan handia egin, nahiko gazte zendu baitzen». Izan ere, 30 urte zituela hil zen, 1922an, antza sukar tifoidearen eraginez.

Umeak, sexu-erasoak eta armak
Morenok egiterik izan ez zuena ahaleginduko da gauzatzen Pichichi Fun-

dazioa. Rafael Moreno Martin *Pitxitxi* zenaren loba-ilobak bultzatu du proiektua; 2003 eta 2007 bitartean, Getxoko PPrene zinegotzi izandakoak. Bi izango dira lehenengo egitasmoak, biak ala biak Kongoko Errepublika Demokratikoan kokatuta, eta Coopera GKEgaz batera abiatutako direnak. Batetik, arreta egingo diete sexu-erasoren bat pairatu duten 2 eta 10 urte bitarteko neskatuei. Bestetik, Lwiro herriko futbol-eskola sustatuko dute, umeek armak baloien truke alda ditzaten. Bertako taldeak Athletic Club eta Lehoiak deitzen dira, Ibaiganetik jasotako laguntza eskertzeko. Hango umeak famatu egin ziren gurean 2008an, bideo batean ereserki zurigorria abestu zutelako. ◀

Neska-mutilak uretara eroateko aroa heldu da



Jarduera denak hila bete bakoitzeko azkeneko aste-akabuan izango dira. © GETXOKO UDALA

Aste-akabuan, zapatu eta domekan, hasiko da umedun, ume- txo eta familiei begirako doako ur-jardueren denboraldi berria. Osasuna eta aisia lotzeko programa Gobelak eta Fadurako igerilekuetan garatuko dute, Getxo Igeriketa Waterpolo

klubak eta Getxo Kirolak udal erakundeak antolatuta. Gainera, udalerriko lehen arretako osasun-zentroek ere ekimenean lagunduko dute. Iazko denboraldian, 400 bat abonatu parte hartu zuten. ◀

info+: 944 308 070 (Fadura) / 944 045 151 (Gobela)

Arenasek lekua utzi die zuzeneko arerioei



Jon Perez Bolo-ren taldeak beste behin kale egin zuen aurreko aste-akabuan, Real Unionen aurka 2-0 galduta. Liga ederto hasi zuten gorribeltzek, lehenengo 7 jardunaldietan lau garaipen eta hiru berdinketa erdietsiz. Baina urriaren 10ean Alfredo Di Stefano futbol-zelaitik pasatu zirenetik, taldeak okerrera egin du. Real Madrilen Castilla filialak Arenasen bolada apurtu zuen, eta harrezkeroztik, Gobelakoek beste puntu bat baino ez dute batu. Bosgarren postura jaitsi dira, oraingoz, igotzeko aukera galduz. ◀

Ugeraga, talde umila baina garaiezin



Puntuz nagusi da Ugeraga futbol-talde sopoloztarra: daborduko, 18 metatu ditu sei partidatan, ahal ziren denak. Erregionaleko maila goreneko sailkapenenean buru dira Urkokoak, ezinbestez. Txus Diazen zuzendaritzari oraingoz ederto atera zaio Omar Alonso entrenatzailearen aldeko apustua. Alonsok Dinamo igoarazi zuen pasa den denboraldian maila horretara, eta bertatik dozena erdi jokalaria ekarri ditu Ugeragara beragaz. Balentria berresten ahaleginduko dira aste-akabuan Uritarraren aurka. ◀

Leioa Waterpolo, lider sendoa



Leioak talde gaztea dauka denboraldi honetan. © LEIOA WATERPOLO

Leioa Waterpoloko emakumeek irabazi zuten zapatuan, Lehenengo Mailako ligaren hirugarren partida. Orain arte, jokatutako denetan nagusitu dira, 9 puntu bilduz. Horri esker, lider jarraituko dute beste jardunaldi batez. Halere, leioaztarrek estu egin zuten partidaren amaiera. Izan ere, Leioa ozta-ozta nagusitu zitzaion Madrilgo Cuatro Caminosi: 8-7.

Talde biek adorea erakutsi zuten Askartzako igerilekuan. Lehenengo jokaldiagaz batera, biek arriskatu zuten partida irabazteko asmoz. Dena den, lehenengo zatian tanto bakarra izan zen, etxekoek sartutakoa. Bigarren aldian, norgehiagokak jarraitu

zuen bere horretan: leioaztarrek agindu arren, Cuatro Caminoseko emakumeek erantzun egin zuten. Atsedena hurbiltzean, 2-2 zeuden, baina minutu magiko bitan, Jon Lopezen neskek lau tanto sartu zituzten, aldia 6-2 itxiz.

Dena den, madrildarrak ez ziren kikildu, eta hirugarren zatian hiru gol sartu zituzten Leioakoen atean (6-5). Kostata bada ere, etxekoek arrakala es-tali, eta madrildarrei aurre egin zieten. Azken aldian, Jon Lopezen taldeak sufritu zuen, markagailua 8-6 jartzeko. Baina partida amaitu baino 3 minutu lehenago, 8-7 heldu zen. Epikoak izan ziren 90 segundo horiek, leioaztarrek penalti bat gelditu, eta madrildarren eraso ezeztatu zutenean. ◀

Getxo Waterpolok badu emakumezkoen taldea

Pasa den irailean, dei zabala egin zuen Getxo Igeriketa Waterpolo Klubak. Emakumezkoen talde bi atera gura zuen jokatzeko. Zorionez, 11 jokalarikusi ahal izan genituen Getxoren koloreakaz irailaren 14an, denboraldi aurrekoan, Sestaoko klubaren aurka jokatutako lagunartekoan. Urrian, 15 ziren daborduko eta oraindino jokalarik berrien zain daude.

Klubak harrobitik igotako neska-kaz eta kanpotik etorritako emakumeakaz senior taldea sortu zuen, jokalarien erdiak 18 urte beteta izan ez arren. Neskek Euskal Herriko Ligari ekin zioten pasa den urriaren 17an,

Santoñan, Lehenengo Mailan. Hiru partidaren ostean, azkena da talde berria, orain arte ez dutelako punturik batu; eta jokatutako hiru demak galdu egin ditu, tarte handiz. 74 gol sartu dizkiete eta tanto bakarra lortu dute, Alazne Palaciok egindakoa. Patxi Anton klubeko arduradunak eskertu du taldeak daukan «gogoia eta ilusioa. Giroa izugarri ona da!». Jakin badakite, bidaia luzea dela eta asko dutela entrenatzeko: «batzuk lehenengo aldiz sartu dira uretara». Zapatuan derbia jokatuko dute Leioa Bren aurka, Sako-netan, 14:00etan. «Alde handiz irabaziko gaituzte», iragarri du Antonek. ◀



Bigarren bueltan gehiago gozatuko dutela uste dute getxoztarrek. © GETXO I. W.

Mercedes Aristeguiak proba bi irabazi ditu

Mercedes Aristegui Jolaseta-ko tenislaria historia idazten dabil, 16 urte azpiko Madrilgo Mutua sariketan. 15 urteko gazteak proba bi irabazi ditu denboraldi honetan. Gainera, hori egiten duen lehenengo jokalaria da. Urriaren 11n Valladoliden nagusitu zen gaztea, eta joan den domekan Jolasetan irabazi zuen. Zirkuituko bosgarren proba jokatu zen Negurin. Tenislari getxoztarrek baliatu zuen etxean jokatzeko ekarri zion abantaila eta 6-2 eta 6-0 gailendu zitzaion Ines Benitori. Aristeguiak onartu zuenez, «oso hunkituta nago. Markagailuak islatu ez arren, partida oso go-

gorra izan da eta kontzentrazio handia behar izan dut. Orain, azken fasean oso ondo jokatzeko tokatuko zait eta garaipena lortzerik badut, hobeto».

Izan ere, Aristeguiak fase horretarako sailkapena berretsi zuen domekan, Ernesto Sanz madrildarrak legez. Partidak 2016ko maiatzaren 5etik 8ra jokatuko dira Madrilgo Caja Magica kirol-gunean. Bertan, tenis izarrak ezagutzeko esperantza dauka Jolaseta-koak, batez ere, Garbiñe Muguruza: «ahalegin- eta sakrifizio-adibidea da». Aristegui ez da izango jokalarik getxoztar bakarra, Lucia de la Puerta ere sailkatu da eta azken faserako. ◀

Getxo Karate klubak domina bi lortu ditu

Urriaren 11n amaitu zen Kordobako Palma del Rio udalerrian Espainiako Karate Federazioaren kontzentrazioa. Ekimena 2015eko Munduko Txapelketa prestatzeko baliatu zuten. Ohi legez, selekzioen sariketak itxi zuen aste-akabua eta bertan parte hartu zuten maila handiko 200 bat kirolarik, tartean Getxo Karate Klubaren hiru kidek. Xabier Peredak urrezko domina jantzi zuen Kata modalitatean, gazte kategorian. Sara Pablosek zilarrezko saria irabazi zuen kadeteen artean, modalitate berean. Getxo Karate Klubak azpimarratu du bere ordezkari-tzak egindako «egundoko lana». ◀

Erandioko txirrindularitza-martxa, domekan

Domekan egingo da Erandio-Bilbo-Erandio XVI. Ibilbide Zikloturista, Erandioko Txirrindulari Elkarteak antolatuta. Ohi den legez, irteera Irailaren 23a plazan egongo da, udal-txearen aurrean, goizeko 11:30ean. Helmuga leku berean egongo da eta ibilaldian hiru ordu ematea aurreikusit dute. Ekimena «txirrindularien eskubideen alde» egingo dute, auto gidariei «errespetua» eskatzeko. Hala ere, Al-dundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatu diete neurriak hartzea txirrindularien harrapaketak direla-eta, errepide denetan 1,5 metro eurentzat gordez. ◀

info+: Respetanosvivos.es

Terreros: kadete berria Raspasen



Espainiako txapelketa 14 urtegar irabazi du Terreros. © RASPAS A. E.

Laura Terreros Echegarayk txapeldun hirukoitza izatea lortu du: Raspas arraun-elkarteko ki-dea nagusitu da Bizkai, EAE eta Espainiako txapelketetan, arraunketa olinpikoko skiff (1x) modalitatean. Kadete-mailara igo berri da, eta denboraldi berrirako prestatzen dabil da-borduko. Bere erronka nagusia hazten jarraitzea da, kirolari zein pertsona gisa. Halere, ahaleginduko da dominaren bat lortzen txapelketa ofizialetan, «oso zaila izango dela badakidan arren». Izan ere, «gainerako lehiakideek maila aparta dute», bere ustez.

Orain dela urte bi hasi zen Terreros Raspasen. Bere neba Iñigo ere arraunlari da bertan, eta berak bultzatu zuen: «lagun batez sartu nintzen, nire nebak berotuta, eta arraunean ondo genbiltzala ikusi genuen. Lehenengo neskak izateagatik ere, bikain hartu gintuzten mutilek. Sano laguntzen digute. Arraun egiten primeran pasatzen dugu, eta merezi du praktikatzea, kirol gogorra bada ere».

Iaz, Marcos Morales izan zuen entrenatzaile eta prestatzaile, eta bere aginduetara jarraituko du Terrerosen aurten. Hasi du prestaketa, indarra eta iraupena hobetzeko. Entrenamenduak iazkoak baino gogorragoak, luzeagoak, astunagoak eta aspergarriagoak dira; zazpi orduko saioak astean, psikomotrizitatea, erresistentzia, indarra... lantzeko; hazteko adinean diren kirolarientzat ohikoak dira.

Donostiako eta Getxoko estalpeko arraun-ergometroko txapelketetan lehiatuko da Terreros, azaroaren 14an eta abenduaren 12an, hurrenez hurren. Onenen artean sailkatuz gero, Espainiako txapelketara joango litza-teke, Sevillara, urtarilaren amaieran edo otsailaren hasieran. Egun horietan ere jokatuko da Euskadiko Iraupen Txapelketa, aulki mugikorrean. Raspas klubak espero du Terreros Sevillara joatea beste taldekide bigaz batera. «Gogorra izango da maila handia baitago, baina kirolari hobea izateko lehiatu beharra dago», dio gazteak. ◀

Arraunean, gero eta emakume gehiago dabil

Raspas arraun-taldeko emakumezkoen atala bederatzi kirolarik osatzen dute. Famatuena Virginia Diaz da; EAEko, AEBetako eta Espainiako hainbat txapelketa irabazi du. Gainera, Rioko Olinpiar Jokoetan lehiatzeko aukera izango du. Bestalde, klubaren esanetan, arraun-eskolan «etorkizun handiko harrobia» dago: zortzi haur eta kadete. Horien artean, Laura Terreros nabarmendu dute. Marcos Moralesek eta Virginia Diazek neskatoen trebakuntzan lagundu eta parte hartzen dute eskola horretan. Raspasen ustean, emakumezkoen es-

kola «modu garrantzitsu eta etengabe» dabil hazten, eta «horrek aukera handiak ematen dizkio etorkizunari begira». Zentzu horretan, klubeko kirol-zuzendaritza teknikoaren asmoa da traineruagaz lanean hasi eta batel lehiakorra osatzea. Raspasek emakumeen lehenengo bandera lortzeko ametsa ere badute. Halere, kirol trebakuntzagaz batera, kirolarien balio-heziketa sustatu gura dute neska-mutulen artean: «talde-sena; apaltasuna, harremanak, motibazioa, buru-belarri jardutea, eta elkartasuna. Eta, batez ere, genero-berdintasuna». ◀



Raspaseko emakumezkoek hamar domina irabazi dituzte aurten. © RASPAS A. E.

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



**Iñaki
Bitxitegia**

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

**Jarrai
gaitzazu:**



hirukaEus



@hirukaEus

www.hiruka.eus

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

	3			7	5		8	
	8				2			9
	4				8	7	5	
			5		6	3		2
6	5		3	4				
3	2	8						4
				8		6		
		7					9	

			6	4			3	
4		5				1		2
	3	6		8			7	
				7	2			
	7			6			1	
5	2					8		
	8					7		
1				3				

Soluzioak

6	2	4	8	7	1	9	5	3
8	1	7	9	5	3	4	2	6
3	9	5	4	6	2	7	1	8
5	8	9	3	4	7	1	6	2
1	7	2	5	8	6	3	9	4
4	9	3	2	1	9	8	7	5
2	4	7	6	8	5	3	2	1
7	5	1	6	3	4	2	8	9
9	3	8	1	2	5	6	4	7

6	2	9	5	3	8	7	4	1
1	5	7	4	2	6	3	8	9
3	4	8	9	1	7	6	2	5
8	1	2	3	9	5	4	7	6
9	6	3	2	7	4	1	5	8
4	7	5	6	8	1	9	3	2
7	9	4	1	5	2	8	6	3
2	8	1	7	3	6	5	9	4
5	3	8	9	4	6	2	1	7

3	9	8	4	1	2	7	9	5
5	9	6	3	8	7	4	1	6
4	1	7	4	9	5	6	8	2
8	1	6	7	4	3	2	5	9
2	4	3	9	6	5	1	7	8
7	6	5	1	2	8	3	6	4
1	5	7	8	3	6	9	4	2
6	3	4	2	9	1	5	8	7
9	2	8	5	7	4	6	3	1

7		9						
		2	4	3		1		
	3		8	6				
			6		2		9	4
4								
	9	1			3	6		5
					4			3
		6	1	7		4		

Zorion agurrak

Urtebetetzea, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



SORKUNDE
LEIOA
Ikastolako lankideen partez

Zorionak Sorkunde! Musu handi bat ikastolako lankideen partez eta jakin ezazu faltan bota zaitugula. Zaindu zaitez, sikiera!



ODEI
ALGORTA
Kuadrillaren partez

Animo biziko duzun esperientzia berrian! Suitzako seriotasunak zure aurpegiko irribarrea ez dezala ezaba inoiz. Muxu erraldoia!!!



TORTU
ALGORTA
Maite zaituztenen partez

Zorionak! Danok etxean aske ospatu arte, Algortatik osasuna, maitasuna eta askatasuna! Presoak sorterrira!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Aste honetan, leku denetan ikusiko dituzu loreak, baina egon lasai, ez baitira izango zendutakoen-tzakoroak.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bada garaia zapatilak lotu eta kirola egitera at-era zaitez. Gogoratu: *mens sana in corpore sano*. Esamolde nekatua da, baina merezi du.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Hautatu behar izanez gero, aukeratu urdina. Bese-tela, gero ez esan abisurik jaso ez zenuela. Gorria hartzekotan, egoera zail xamar ipiniko da.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Bada garaia aste-akaburen batean patxadaz lo egin ahal izateko. Ez onartu azken orduan eginda-ko gaueko planik.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zure auzokideak gorroto ditu *Halloween* moduko inportazio-jaiak, baina susto galanta eman die-zaiokezu kalabaza bat argituz.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Konfiantza izan, eguna haizetsua baldin bada. Au-dera berriak zabalduko dira, argi-izpiak hodeien artean zelan.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Zure proiektuak azterketa serioa behar du, nagu-si irtetea gura baduzu. Bilatu konfiantzako aditu-ren bat.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Estresa jaisteko badira hamaika metodo. Dantzan egitea haietako bat besterik ez da. Pentsatu duzu hura probatzea?



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ezpata zorroan sartuta duen gudaria bakean da. Baina bakea apurtzean, berbak darabiltzan guda-riak gerra irabaz dezake.




Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Zure ingurua euskaldunagoa izan dadin eragiteko aukera izango duzu egunotan. Aldeko ezustekoak hartuko dituzu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ederra da hilero komiki umoretsua euskaraz ira-kurri ahal izatea. Baina oraingoan, paperean laz-tandu ahal izango duzu. Egin zure ekarpena.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Agian, oraindino ez da ordua Gabonetarako pla-nak egiteko. Baina inoiz ez da goizegi Olentzerori gutuna idazteko!



Errigora

Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka

Erriberako baratzagaz, euskara eta gure sabelak elikatzea proposatu digu Errigorak. *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* goiburupean, bete nahi dituzte kontsumitzaileen gurariak: kalitateko produktuak eta bertoko ekoizleak eta euskara bultzatzea. Azaroaren 8ra arte eska daitezke saskiak.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Pasa den astean hasi zen Errigoraren kanpaina berria, Nafarroako hegoaldeko ekoizleak eta euskalgintza bultzatzeko asmoz. Oraingo honetan, saskia osatuko dute Erriberako 15 ekoizleren produktu-sortagaz. 50 euroan ipini dituzte otzarak salgai, eta horren balioaren %25 Nafarroako euskalgintzara bideratuko dute.

Eskaerak azaroaren 8ra arte egin daitezke, eta horretarako 15 leku daude Uribe Kostan, euskaltegiek, ikastolek, kultur elkarteek eta elikadura-dendek musu-truk emandako laguntzari esker. Era berean, eskaerak Internet bidez egin daitezke ekimenaren webgunean.

Nafarroako deiadarra

Xabier Gojenolagoitiak, Ibai Sueskunek eta Imanol Iberok egin zuten aurtengo kanpainaren lehenengo aurkezpena Iruñean, urriaren 1ean. Sinbolismoz betetako agerraldi hura Nafarroako Parlamentuaren areto batean egin zuten. Hiru ordezkarien arabera, Zazpiak Bat Harreman Sarea agentziaren ekimena da Errigora, eta Nafarroako hegoaldeko produktuz osatutako saskiak banatzen laguntzea du helburu. «Elikatzeko subiranotasuna» indartzeaz gainera, «etekinen zati batekin, eremu ez euskalduna deritzon euskararen alde lan egiten duten sektoreak laguntzeko» asmoa du. Ikastolen Elkartek, Sortzen-ek eta AEK

koordinadorak laguntzen dute, beste batzuek azarera: euskararen arloko eragileak, sindikatuak, nekazariak, ekoizleak, Nafarroako hegoaldeko euskaltzaleak, eta abar, eta abar.

Aurtengo proiektuak

Gojenolagoitiak, Sueskunek eta Iberok azaldu zuten, ikasturte bakoitzean kanpaina garrantzitsu bi

Errigoraren lehenengo kanpaina 2012an egin zuten. Orduan talde txikia batek lortu zuen 1.500 saski baino gehiago banatzea

egiten ditu Errigorak, udagoienera eta udaberrian. Kanpainak auzolanean egiten dituztenez, erabakiak ere hala hartzen dituzte, eta laguntzen duten eragileak adosten dituzte Euskal Herri osoan otzarak merkaturatzetik lortzen den laguntza ekonomikoa zein proiekturi bideratuko zaion.

Aurten ere, horrela adostu dute, eta kontsumitzaileek saski bakoitzagatik ordainduko dituzten 50 euroetatik 12,50 € honako proiektuei emango dizkiete: Lodosa eta Vianako ikastolen biziraupenari, Erriberako AEKri, eta D eredua Nafarroa osora hedatze-

ko ekimenei. Errigora proiektua 2012an sortu zuten. Orduan, talde txiki batek lortu zuen 1.500 saski baino gehiago banatzea. Erriberako ekoizle bik ipini zituzten produktuak, eta Ikastolen Elkartaren laguntza izan zuten. Lan horri esker, «Tuterako Argia Ikastolarentzako 34.000 euro inguru» lortu zituzten.

Hiru urteko uzta

Harrezkeroztik, erruz zabaltzen da ekimena, eta 15.000 etxetara heltzea lortu dute, hori baita urtebetean saskia hartu duten kontsumitzaileen kopurua.

Ekonomikoki, 1,5 milioi euroko fakturazioa egin dute denera, eta hortik 300.000 bat euro Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari eman dizkiote. Egitasmoan parte hartzen duten baserritarren eta kontserba-ekoizleen kopurua ere ugaltzen da, urtez urte. 2012an bi baino ez ziren; orduan, urtero bikoiztu egin da zifra hori eta, hala, aurten 15 izango dira.

Horren bidez, Erriberako 370.000 kontserba-ontzi banatu dituzte, eta 300.000 euroko balioa duten 88.000 litro olio ipini dituzte kontsumitzaileen esku.

Arrakastaren koskatariko bat aurki daiteke zabaltzen dituzten produktuen kalitatean. Errigora kideek akordura ekarri dutenez, «nekazaritzako irizpide ekologikoekin lan egiten duten enpresa txikiak» aukeratzen dituzte saskiak betetzeko. Hala, orburuak, zainzuriak, arroza, olioak, piperrak, karduk, mertxika edo melokotoi marmelada edo beste edozein elikagai izan, «kalitate bikaina» bermatuta dagoela diote Errigorako partaideek: «zergatik urrutiko produktuak kontsumitu, geurean baditugu? Geurea kontsumi dezagun; izan ere, gainera, paregabea da».

Formularen beste sekretutxo bat lan-moldea da. Errigorako kideek azpimarratu dutenez, «Errigora Euskal Herria oinarri eta elkarlana lanabes dituen



ALBOKO IRUDIETAN:
Angel, Arronizko kontserba ekoizlea. Durangon egindako aurkezpena. Ablitaseko auzolan-taldea. © ERRIGORA



ekimen herritarra da. Nafarroa hegoaldea du ardatz, eta euskara ofiziala ez den eremuetan eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz».

Helburu sendoak

Norabide horretan, gero eta lagun gehiago dabil auzolanean: «gero eta zabalagoa den lagunarte batek gorpuzten du ekimena; ilusioz eta anbizioz ari garen herritar, nekazari, euskaltzale, ekoizle eta kontsumitzaileez osatutako askotariko sare batek. Gure txikitasetatik elkarlan handi bat gauzatu nahi dugu, Nafarroak Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa behar duelako», harro agertu dira ekimenaren bultzatzaileak.

Eskaerak azaroaren 8ra arte egin daitezke; horretarako, 15 leku daude Uribe Kostan. Eskaerak Internetez ere egin daitezke

Izan ere, helburu gutxi baina sendoak jarri dizkio ekimenak bere buruari. Hain zuzen ere, hiru dira helburu horiek. Lehenengoa honakoa da: Nafarroa hegoaldeak propio dituen produktuak Euskal Herriko plazan kokatzea, urruneko ordez bertokoak kontsumi ditzagun. Bigarren helburua Nafarroa hegoaldean «euskara ofiziala ez den eremuko» euskalgintzari bultzada ekonomikoa ematean datza. Eta azkenik, herrigintza, auzolana, eta nazio-eraikuntza bultzatzea da hirugarren helburua, «betiko lan kolektiboan oinarrituz ekarpentxo bat egitea, lan-mol-

de horren beharra eta indarra goraipatuz», Errigora-ko partaideek azaldu dutenez.

Kanpaina, Uribe Kostan

Egunotan, «Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka» kanpaina murgilduta dago Uribe Kostako euskaltzale eta elkarte asko: saskien produktuen berri ematen, propaganda zabaltzen eta herritarren zalantzak argitzen. Horietako bat da Lucia Aragones, Algortako Ardaska denda ekologikoko kidea. Lehenengo aldiz parte hartzen dabil aurten Errigoraren ekimenean, euskalgintzan diharduten hainbat bezerok horrela eskatuta. Zalantzarik ez zuten izan Ardaskako partaideek, euskararen aldeko jarrerak bultzatuta. Horrez gainera, kanpainak sustatzen dituen elikagaiak «produktu ekologikoak» izatea arrazoi garrantzitsua izan zen eurentzat.

Produktuak

Azaroaren 8a baino lehenago eskaera egin ondoren, kontsumitzaileak otzara jaso arte ez du ordaindu beharko. Hala, jasotzean, saskian hurrengo elikagaiak topatuko ditu, aipatzen diren ekoizleek hornituta: ardo beltz botila (Azpea, Lezaun edo Mendiko), olio birjina estraren 0,5 litroko botila (Bardea, Castillo de Ablitas, Ekolo edo La casa del aceite), melokotoia almibarrean eta pikillo-piperren untapana (Almanaque), orburuak (Ebron edo Maria Jesus), potxak (La Churta edo Maria Jesus), kardua (Maria Jesus edo Pedro Luis), mahats zukua (Ekolo), almendrak (Ntra. Sra. del Rosario), pikillo-piperren ontzi txikia eta zainzuriak (Iturri), pikillo-piperren ontzi handia (El Escolar edo Meleta) eta melokotoi-marmelada (Pedro Luis). Kutxa jasotzean, on egin! ◀

info+: Errigora.eus

Errigora gunek



ERANDIO

Gau Txori kultur elkarte
San Jeronimo kalea, 22. Altxaga | 679 353 690

GETXO

Ardaska denda ekologikoa
Algortako etorbidea, 90. Algorta | 946 120 618
AzeBarri kultur elkarte
Euskal Herria etorb., 14-16. Algorta | azebarri@gmail.com
Branka kultur elkarte
Ezekiel Agirre kalea, 28. Itzubaltzeta/Romo.
Getxoko udal euskaltegia
Lope de Vega kalea, 12. Itzubaltzeta/Romo.
944 646 299 | euskaltegi@getxo.net
Lauaxeta AEK euskaltegia
Iparbide kalea, 6. Algorta | 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus
Sarean eskatzeko aukera dago: Ttiki.com/342323
San Nikolas ikastola
Areneazpi, 15. Algorta | 944 305 478 | ikastola@sanikolas.com

GORLIZ

Jentilbaso AEK euskaltegia
Iberrebarri plaza, 5 | 946 773 646 | jentilbaso@aek.eus

LEIOA

Betiko ikastola
Artatza auzoa, 84 | 944 642 364 | info@betikoikastola.net
Sarean eskatzeko aukera dago: Ttiki.com/342325
Kurkudi kultur elkarte
Sabino Arana etorbidea, 82 | 944 802 655
Lamia AEK euskaltegia
Luis Bilbao Libano kalea, 8 | 944 646 063 | lamia@aek.eus
Mastitxu udal euskaltegia
Iparragirre etorb., 78 | 944 640 002 | euskaltegi@leioa.net

PLENTZIA

Jentilbaso AEK euskaltegia
Kristo enparantza, 8 | 946 773 607 | jentilbaso@aek.eus

SOPELA

Ander Deuna ikastola
Gatzarriñe kalea, 47 | 946 760 266 | info@anderdeuna.net



Mundukatuak

Nerea Martiarena Berrostegietta algortarra

«Paradisua dirudi Puerto de la Cruzeko lakuak»

Nerea Martiarena ikastera joan zen Kanarietara, orain dela hiru urte. Magisteritza amaituta, bertako Puerto de la Cruzen bizitzen geratu da, bikotekideagaz. Aurretik hainbat alditan bisitatu zuen Afrikako uhartedia, oporrak lagunak bisitatzeko baliatu baitzituen.

Hasieratik Martiarenari bitxia egin zitzaion tenerifetarrek duten berbaera. «Kanariarrek esamolde asko erabiltzen dituzte, eta horiek ez badituzu ezagutzen, askotan zaila da elkarrizketa ondo ulertzea». Horri, «darabilten doinua» gehitu behar zaio. Algortarrak behin baino gehiagotan eskatu die «lasaiago berba egiteko, bestela ez dudalako ulertzen». Baina kanariarrek duten bizitza-eritmoa egin zaio benetan harrigarria: «ez da gurea bezain azeleratua, gu robotak legez gabiltza, eta haiek patxadatsuago: 'helduko naiz', 'egingo dut', eta kitto! Horrelako

jarrerak arreta piztu zidan. Adibidez, errepidetik nindoan behin, eta handik pasatu zenak autoa geratu zuen, beste bategaz berba egiteko, konturatu barik atzean beste ibilgailu bat zuela. Euskal Herrian egundoko klaxon-ho-

“Euskal herritarrak robotak legez gabiltza, eta kanariarrek patxadatsuagoak dira”

tsak entzungo genituzke, eta 'kendu hortik, traba egiten duzu-eta' bezalako oihiak. Hemen, ordea, ez da ezer gertatzen; itxaron egiten dute».

Gastronomian, txerri- eta untxi-hargia erabiltzen dute gehien, abereentzako bazkarik apenas dutelako, eta txahal eta behi gutxi dute bertan. Era berean, bertoko produktuak dastatu

gura dituenak hainbat aukera ditu: ardi- eta ahuntz-gazta onak; Gomeran palmondo-izerdiz egiten duten *eztia*; jatorri-deiturako ardoak; kaktus likorea; *papa* kanariarrak; hainbat mota-tako *mojo*-ak; edo bai ala bai probatu beharreko *almogrote*-a, gazta-saltsa moduko jakia.

Ikusteko ere, gauza asko dago Puerto de la Cruzen, Martiarenak dioenez. Hasteko, Loro Parque zooa proposatu du. Bertan, loro asko izateaz gainera, ezohiko animaliak dituzte: gorilak, hartz inurrijaleak eta izurdeak, besteak beste. Gainera, orken ikuskizuna dute. Animaliak bakean uztea gurago dutenek Martiarenaz laku artifiziala bisita dezakete. Kanariak osatzen dituzten 7 irla nagusien itxura dauka, eta ozeanotik ur gazitua sartzen da: «Paradisua dirudi. Gainera, olatuak bertan apurtzen dira». Hondartza politak ere asko dira inguruan. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortakoa.

Adina

30 urte.

Zertan dabil

Lan bila.

Ikasketak

Haur Hezkuntzako Goi Zikloa eta Haur Magisteritza.

Noiz arte Kanarietan?

Oraingoz ez du pentsatu Puerto de la Cruz uztea. Dena den, ez du baztertzen epe luze batean, lanik topatzen ez badu; itxaropentsua da, hala ere.

NON DAGO



Lurraldea

Kanariar uharteak.

Azalera

7.447 km2 (EAEk beste, gutxi gorabehera).

Hiria

Puerto de la Cruz (Tenerife).

Biztanleria

29.435.

Hizkuntzak

XVIII. mendera arte, guantxera egiten zuten bertan. Hizkuntza hori Magrebeko berbereraren familiakoa zela uste da. Gaztelak irlak konkistatu eta hiru mendera galdu zen. Federiko Krutwig euskaltzain getxoxtarrak guantxera ikertu zuen *Garaldea* liburuan, euskal kolonizatzaileen lekukotzan oinarrituz. Horiek zioten irlakoko biztanleek euskara moduko hizkuntza batean egiten zutela berba.

Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua